

**PATRI URKIZU**

**KORDOBAKO DESTERRUTIK**



Azaleko argazkia: Martin Arrizubieta (Mundaka 1909-  
Kordoba 1988)

# I

## MUNDAKARRA NAZ

**M**UNDAKARRA *naɜ ni, Bizkaitarra naɜ, Euskadikoa naɜ. Zazpirak bat.* Horrelaxe hasi du egunorozkoa Don Martinek bere bizitzako azken urtea izango den mila bederatzirehun eta laurogeita zortziko urtarrilaren lehen egunean, Kordobako hirian.

Jaso du mahai gainetik Mundakako Jaiotagiriaren akta liburutik fotokopiaturik eta posta ohikoaz telefonoz eskatu ondoren bidali dioten agiria, eta euskaraz idatzi nahi baititu bere bizitza oroitzapenak euskaratzen hasi da Plazido Mujikaren hiztegi lodi tapagorria lagun duela.

Mundakako Elizatean mila bederatzirehun eta bederatziko irailaren bederatzian, - Ama Birjinaren sorkundea hainbeste herritan ospatzen den egun berezian, hain zuzen -,

goizeko hamarretan, Herri honetako epaile naizen Don Angel Goiri eta Urkiza eta nire idazkari den Don Frantzisko Rodriguez jaunen aurrean aurkeztu da Don Pedro Aldamiro Etxebarria, [...] eskatuz Erregistro zibilean haur bat jasoa izan dadin, eta beraz ahaide bezala adierazten du: haur hau jaioa dela gurasoen etxean atzoko egunez arratsaldeko lauretan. *Ignazio Arrizubieta* Mundakan jaioaren seme lejitimoa dela, honek hogeita bederatzi urte dituela, profesioz auzo honetako marinela dela eta *Maria Biktoría de Larrinaga*, Elizate honetakoa be, hogeita zazpi urteduna, etxeko lanetan diharduena, eta bere senarrarekin bizi dena, zeinaren aitita amamak diren aitaren partetik jadanik zendua den Martin Arrizubieta eta Maria Kristina Mendezona, hau ere Mundakan jaioa, alarguna, etxeko lanetara dedikatua herrian bizi dena; eta amaren partetik Don Jose Bentura Larrinaga, jada hila, eta zendua ere den Doña Kiteria Mendezonaren alaba. [...] Agiria osorik irakurri ondoren eta presente direnak gonbidatuak sinatzera eta euren kabuz irakurtzera nahi badute eta egoki iruditzen bazaie Herri Epaitegiko zigiluaz markatu dute agiria eta sinatu Epaile jaunak eta lekukoek: Anjel Goirik, Pedro Adamiz-Etxebarria Urriolak, Zeferino Albonigak, Juan Kaltzadak eta Frantzisko Rodriguezek.

Beraz garbi gelditzen dira agiriaren arabera nire lau abizenak, izen deiturak zein diren, nor naizen eta nondik natorren: Martin Maria Arrizubieta Larrinaga Mendezona Mendezona.

Mundakak, Bizkaiako kostan Urdaibaiaren ezker aldean eta Katilotxu mendixkaren magalean kokaturik dagoen

herrixkak, mendebaldetik Bermeorekin dauka muga, hegoaldetik Sukarrietarekin eta ekialde-iparretik Itsaso Kantabrikoarekin, aurrez-aurre ageri zaiolarik Izaro uhartea, leienda ugariren iradokitzailea.

Nire haurtzaroko garaian arrantzale herria zen Mundaka eta portuaren inguruan bilakatzen zuen bere bizimodua. Portua eta Santa Maria, hots, Andra Mari elizaren inguruan. Hau itsasoari bizkar emanaz eraikia izan zen X. mendean estilo erromanikoan eta pairatu zuen suntsiketen ondoren itxura gotikoa hartu zuen XVI.ean Euskal Herriko kostaldeko eliza askok lez. Dena den, mendebaldetik begiratuta atari errenazentista du gaur egun, eta dorrea estilo neogotikoan XIX. mendean altxatu zuten. Mende honetan eraiki zen ere kostaburuan dagoen Santa Katalina ermitatxoa.

Aski ezagunak dira, Mundaka hitzaren etimologiak. Zenbaiten ustez latinetik datorren hitza da, 'munda aqua'-tik, ur gardenak omen zituen eta. Lope García de Salazar ahaide nagusiaren *Bienandanzas y Fortunas* eta *Crónica y Linajes de Vyscaya* liburuetan kontatzen da ere bertara iritsi ziren eskoziarrek deitu zutela horrela konparatuz Urdaibaikoekin. Bikingoan itsasontzi batean Printzesa eder bat ba omen zihoan, eta haur batez erditu baitzen, Laidatxu hondartzan arribatu ziren. Ume hau haunditu zelarik Jaun Zuria deitu zioten, eta denborarekin hau Bizkaiako Jaun izatera iritsi zen gaztelarren kontra Arrigorriagako batailan gogor peleatu ondoren garaile atera zirelarik. Beste batzuen iritziz bilingo daniarrek eman zioten izena herriari, mund (aho) eta haka (buru) lotuz, Oka ibaiaren bokalean aurkitzen baita prezizki.

Dena den, eta usteak uste, jada XI. mendeko agirietan ageri da izendatua Mondacha gisara.

Eusebio Maria Azkuek, itsas kapitaina eta Resurrekzion ospetsuaren aitak, badu poema bat *Mundakako Emakumea* deitua, hamabost zortziko txikiz osatua, hemen puntuaren arabera eta espazioaz hobeto baliatzearren laukotan ezarriko dudana, zeinaren bederatzigarrenak honelaxe erretratatzen duen andre mundakarra:

Goizean joaten da bizkor Eleizara,  
Mezea entzunda gero auzoko dendara.  
An entzuten dabena geitu ta esaten dau,  
Bat baino eztan gauzea biurtuten da lau.

Beste modura esanda errefrau zaharra, *Urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau*. Alegia, Mundakako emakumeak berritsu izateaz gain, kontu kontari trebeak direla eta gauzak esajeratzeko joera nabarmena daukatela.

Neure ama Bittori eta amama Maria Kristina ere halaxekoak ziren be.

Ni jaio eta hirurogei urte geroago jaioterrian galdeketa batzuek jendartean egin ondoren, euskararen erakutsi beharraz jardun nintzelarik idatzitako artikulu batean honakoa nioen:

Mundakako Aiuntamentuak, kondairearen eta antzinako euskaldun zintzoen gerizpean ipini behar ditu erriko umeak; ez daitezala inoiz ahaztu, Aberasturi

(Azkueren ama), Etxeita (*Jose txo* noblearen egilea) eta Bernardo Garro Otxolua mundakarrak izan zirela.

Hau da, ez zela ahantzi behar Eusebio Maria de los Dolores Azkue Barrundia, Lekeitio 1813an jaioa eta-bertan 1873an hila, pilotu lanetan zenbait urtez itsasoan ibili eta gero Lekeitioko Nautika eskolan irakasle katedraduna, musikazale eta poeta haundiaren emaztea, Maria Karmen Aberasturi Uribarri, mundakar peto-petoa zela, 1835ean jaioa, eta hauek izan zirela operagile, hizkuntzalari, folklore biltzaile, teatrogile, nobelagile, poeta eta Euskaltzaindiaren lehen presidente izan zenaren Resurrekzion Maria de Azkueren gurasoak.

Jose Antonio Arana Martijak dioskun bezala, aita Eusebio oso musikazalea zen eta, beraz, etxe hartan haurtzaroan hil ez ziren anai-arreba guztiek ikasi zuten pianoa jotzen, solfeo, eta euskararen maitasuna. Don Resuk, horrela deitzen zuten gertuko adiskideek, honakoxea aitortzen digu aitaz: Izateagaz batera sortu zuen nere baitan euskararako, musikarako eta Europako zaharren den gure herriaren bizitzarako bizi arteko zaletasuna.

Amari zegokionez, aldiz, *Euskalerrriaren Yakintza* liburuen sarreran esaten zuen, *Lankide andiena izan dodan Mari Karmen Aberasturi ta Uribarri neure ama maiteari*. Halaber burutu zuen hiztegi hirukoitz ospetsuan, *Diccionario vasco-español-francés* deituan eta Bilbaon 1905ean plazaratuan argitzen digu oso maiz ageri zirela laburdura hauek, B-mu, alegia, Bizkaia-Mundaka eta Zortzi-amar bat gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren

ezpainetatik neure belarriera jatsiak dira. Don Resuren ama, esan dugunez mundakarra zen, hainbat eta hainbat ixtorio, kontu eta kantu irakatsi zizkiona, iturri ezinagortua nonbait. Aski ezagunak dira ziuraski aitak, bertso elebidunen moda zabalduari jarraiki, mundakar arrain saltzaileez idatzitako bertsoak euskara eta gaztelania nahasiz.

<i>Para hombres sus maridos</i>	alper dira emonak,
<i>Ellas son en sus casas</i>	andra ta gizonak,
<i>Hombres en casa y fuera</i>	nagosi izateko,
<i>Y hembras cada dos años</i>	sein bat egiteko.

Errespetua ezartzen eta etxea hazten zekitenak, noski.

Bada Mundakan Jauregi bat, Palacio Larrinaga deitua, frantses hotel neobarrokoaren estiloan XIX.mendean izen bereko familiak eraikia. Nire amaren lehengusu egiten ziren. Sendi honek Liverpoolen zeukan egoitza printzipala eta itsasuntzi zenbaiten jabe ziren. Liverpool – La Habana, eta Liverpool – Manila joan-etorriak egiten zituzten, baina Lehen Mundu Gerran flota honetako zenbait kargero hondoratu zituzten alemanek, hala nola *Richard de Larrinaga*, zeina Manchester – Galveston bidaia egiten ari zelarik izan baitzen itsasperatua 1917ko urriaren 8an. Istripu honetan 35 marinel, kapitaina barne hil ziren. Tartean zegoen Juan Imaz mundakarra, Liverpoolen bizi zena bere familiarekin.

Txiki-txikitandik joaten nintzen aita eta amak eskutik hartuta Atalaiara pasieran, batez ere uda parteko igande arratsaldeetan. Hau beti iruditu zait Mundakako bihotza dela.



Bideak itsaso zabalaren ikuspegira garamatza, ostertz borobil amaigaberantz, batzuetan argi besteetan ilun ageri dena, eta hau mugatzen duela bistaurrean daukazu Izaroko uhartea, etengabe olatuen zaplaztekoa jasotzen.

Aitak kontatu ohi zidan behin uharteko ixtorio bat. Uhartean ba omen zen frantziskotarren komentu bat mila eta bostehungarren urte inguruan Ixabel erregina katolikoak eraikiarazia. Bertako fraide batek ba omen zuen, esaldi zaharra da, *jazkereak parrabua ez du egiten*, ba bazeukan Bermeon maitale bat, eta gauero amoranteak leihotik erakusten eta seinalatzen zion fraide ausartari zuzi biztuagaz itsasoko bidea kaia bazterrerraino, eta elkarrekin igarotzen omen zuten gaua ohaide, goiz alban berriro itsasotik eguzkia jaiotzen ikusi eta iluna urratu aurretik berriro komentura itzultzen zelarik. Baina halako batean deabruak, haien zorionaz jeloskor amorantearen leihoko sua itzali eta kostako beste leku urrunean biztu zuen. Eta azkenean nekearen nekez fraidea ito omen zen eta neskak ikusita bere maitalea itota urrungo hondartza batean bere burua leihotik behera bota omen zuen.

Nik urteak aurrera joan zirelarik eta alemanez irakurri nuenean Wilhelm Von Humboldtek bere 1801ean egindako bidaia Euskal Herritik zehar kontatzen duenean Die vasken liburuan, eta fraide engainatuaren pasadizua irakurri nuenean jakintsu prusianoak garaiko mandazain berritsu batengandik jaso zuela Hero eta Leandroren ixtorioa dela ohartu naiz, hainbeste pintoreren irudimena inspiratu duena, eta konturatu zenbaterainoko eragina izan duten herri xumearengan fraide eta apaizen sermoigintzan txertatutako kontakizun klasikoek.

Aipatzen dut ere Joxe Manuel Etxeita 1842an jaio eta 1915ean hila, Manilako alkate izandakoa. Nire jaioturtean argitaratu zuena *Josecho irakurgeta*, hala nola berbaurrea ezarri bere *Jaioterri maitia* nobelari. Honek maiz aipatzen dituela ere bere *Au*, *Ori* ta *Bestia* bertso liburuan bertako pertsonaiak, herriko gizon eta emazte arruntak, batipat bikoteak: Paulo ta Irene, Andolin ta Karmele, Patxo ta Kontze....

Halaber, beste idazle mundakarra ezin ahantz dezaket Bernardo Garro Basterretxea “Otxolua”. Hau 1891ean jaioa eta 1960an Bilbon hila. EUZKADI aldizkarian hainbat kronika, kontu eta itzulpen argitaratua eta bizkaierara hainbat ipuin itzuli dituen, tartean Cesare Croceren *Bertola eta Bertoldin* eta Jean Barbierren *Ipuin-mipuinak*, adibidez.

Badut aspaldi idatzitako nire poema zaharren artean bat ANDEREZ titulatu nuena, haur kanta dena, eta ume garaian amari entzuna eta Azkuek Aezkoa aldean bildutakoa *Cancionero popular vasco*-an irakurtzerakoan *Abu nina Katalina* burura etorri zitzaidana eta amatasunaren inguruan erditua, zeina haurtzaroko garai zoriontsu haiek, lolo-kantuz goxatuak, oroitarazteko interesgarritzat jo eta ekarri dudana hona azken estrofa::

*Abu nina, Katalina*

Lola-ua, neuria.

Ama, niarrez akordatzen danean seina

eta zure titia eman zuk  
zeruko izar guztiak bajatzen dira  
ea nolan niarra siketu dezun.

Naturalezaren irudiek (izarrak, erbiak, arranoak, usuak, txoriak, karakolak, larrosak, laranjak...) hunkitu naute beti are gehiago noski oroitzeak, ikusteak edo irudikatzeak ama haurrari ditia ematen edo loakarratzen. *Abu nina, Katalina / ua lolo guria* estribiloa errepikatzen delarik lotarazle. Hala bada, herri poesian oinarrituz eta elikatuz, ahozko tradizioa neotradizionalismoaren bahetik iraganez eta jaidurari jarraikiz, abiatu nintzen une hartan haur kanten poemagintzan.

Hamaika edo hamabi urte bete arte ez baitzen hasten arruntki seminarioetan mutikotxoak edo txo gisara itsasoratzen nire adineko auzoko beste hurrekin joaten nintzen herriko eskolara eta elizara. Hemen dotrinara eta beste elizkizun guztietara. Komunio txikia bete nuelarik bikarioak erantzun argiak eta memorio ona omen neukan eta monagillo lanetarako hautatu ninduen. Bidenabar latin apur bat buruz ikasi nuelarik, zer nioen jakin gabe.

Uda partean, oporretako garaian portu eta hondartza inguruan igeri edo arrantzatxoak egiten nituen hortarako prestatutako kainabera eta beste lanabesagaz, pantxoak, fanekak, kabuxak eta horrelako arrai txikitxoak, eta bai frontoian pilotan bai futboleko jolasean ibiltzen oso zaletua nintzen.

Hamaika urte nituela eta gurasoek erabaki zuten herriko maisuaren aholkuz eta bikarioarenagaz ere jauzi bat eman behar nuela ikasketetan eta Durangoko jesuitengana eramanez ninduten. Oroitzen dut nola herrian zegoen beribil bakarrean joan nintzen aita eta amarekin Kolejio Haundi hartara, lehen aldiz ikusten nituela Gernika, Zornotza, Euba, Iurreta eta etxe haundi baten atarira iritsi ginela. Hitz batzuek egin zituen nire aitak Don Frantzisko Maria Larrarte izena zuen zuzendariarekin eta ikustaldi bat eman ondoren egoitzari esan zion:

— Ea mutiko bihurri hau zuzentzen dozuen eta gizon probetxuzkoa egiten.

— Ahaleginduko gara.

Iraila zen eta hurrengo urteko uda arte bertan egon behar nuen, eta hantxe bada gelditu nintzen jende ezezagun baten artean aita eta amak eskuz soilik agurtu ondoren.

## DURANGOKO JESUITAK

**D**URANGOKO San Jose Ikastetxea 1880ean eraiki zuten Jesuitek seminarioetarako nerabeak prestatzitezen apaizgintzarako bidean. Ehun ikasle inguru edukitzen zituzten hainbeste mende eta urtetan fruitu onak izan zituen *Ratio Studiorum* ikasketa sistemagaz. Astarloa Elkarteak 1918an lortu zuen Euskara ikasteko irakasle bat eduki zezaten astean behin ordu batez irakatsiz. Eta 1919an bost irakasle baziren hurrengo urtean jada baziren bederatzi hain baitzen ikaske kopurua ugaritu. Durangon bizi ziren bertakoentzat ez ezik beste herrietatik gentozenentzat, kanpokoentzat barnetegia prestatu zeukaten. Beraz neu hasi nintzenean hemen bigarren urtea zen jadanik sistema martxan zeukatela.

Ikastetxearen atarian beti dago Anaia Manuel Gogorza, argal-argala, burusoila, baina ez dago geldirik, sukalderako janari guztiak, baserritarrek ekartzen dituzten barazki, oilo, untxiak eta baserri urrunetik beren astoekin jatsitako

esneketarien marmidak bere begi zorrotzetik igaro behar baitute barneratu aurretik.

Egoitzak ikasketa areto zabalak ditu, irakurketa sala luze bat bakoitzak bere pupitreagaz, kapera pollita gurutze haundi bat eta Ama Birjinaren irudi bategaz, refectoriuma, janleku haundi bat, frontoi estalia, futbol zelaia ere bai... Orotarik badauka nerabe gazte bat aski entretenitzeko moduan. Kontutan hartuta gainera seme bakarra naizela, ez dudala izan jaioterrian anaia-arrebarik hemen aurkitu ditut nire adinekoak eta zaharxeagoak ere direnak. Hala nola Estebe Urkiaga Lauaxeta ezizenez sinatuko dituenak urte batzuek geroago bere artikulu eta poema ederrak.

Seminarioetako bizimodua, gutxi gorabehera bai apaiztegietan bai eta komentuetan, aldaketa haundirik gabe honelaxekoa izan ohi da. Goizeko sei t'erdietan esnatzen ginen tinbre zatar baten zarataz Aita Ignazio Manzidor pasatzen zelarik loleku amankomun hartatik. Egin behar genuen lehen gauza zen geure kubikuluetakoko kortina korritu eta galtzak jantzi, bezperan garbitutako galtzerdiak jada lehortuak koiltxoi petik atera eta aurpegia garbitzera joan ahalik eta arinena lavaboetara. Bata jantzirik genuela igotzen ginen Kapillara eta hemen lehen errezoak egiten hasten ginen. Gero meditazioa zetorren, Meza aurretik. Hau bukatutakoan jaisten ginen gela behar bezala uztera, alegia ohea egitera eta ilaran ezartzen gintuzten gosaltzera joateko unean. Errefektorioan artoz oretu morokil katilukada haundi bat esneagaz edaten genuen ogi puxka batekin zopak lagunduz. Dena isil-isilik. Norbaitek komuneko bidea hartzeko

larrialdian bazegoen aski zuen baimena lortzeko eskua altxa eta bestearekin sabel gaina seinalatzea. Zortzi t´erdiak inguruan Estudio gelan egoten ginen. Eta bederatziak iristean ikasturte bakoitza hantxe zihoan ilaran eta isilik zegokion gelara.

Lehen gaia latina zen. Lehen urtean Zesarren *De Bello Gallico*-rekin hasi ginen. Geroago etorriko ziren Cicerón, Virgilio, eta besteak. Lagungarri Ignazio Errandonea Beran jaio eta Donostian 1970ean hil zen jesuita klasizista ospetsua bilakatu zenaren *Gramatica Latina* izan genuen. Eskura izaten genuen ere oso maiz erabiltzen genuen Raimundo de Miguel y Navas-en *Nuevo diccionario latino-español etimológico* lodikoteagoa hau, noski.

Bost urte igaroko ditut Latina eta Erretorika ikasten (erlijioa, gaztelania, latina, grekera, frantsesa, euskara, matematikak, geografia, historia, musika eta beste). Laster ohitu nintzen eguneroko errutinara.

Jai eta asteburuetan gure ibiladiak egiten genituen Urkiolako magalean eztrata eta galtzada nagusitik batzuetan Mañaria aldera, edo Elorriorantz bestetan. Batzuetan Santa Ageda ermitaxoren paretik eta bestetan San Kristobalenetik. Barrenkaletik igarotzen ginen Lariz dorrepetik, nongo kartzelan lapurrak eta kriminalak preso zeutzan egunero gu bezala meztara eta errosariora behartuak kapilau zorrotz baten manupean.

Santa Maria Uribarriko kalostra eta zurezko arkupe ondotik igarotzean miresten genuen haren zabala, eta udaletxe

ormak irudiz koloreztatuak, Santa Ana arkupea, Kurutziagako harrizko eskulturak. Benetan Durangoko alde hura, behinola Tavira deitua izan zena, harri zaharrez, etxe dotorez eta monumentuz ornitua ederra da zinez.

Klase bakoitzaren aurretik ia ordu bateko prestakuntza izaten genuen gehienetan, eta ez zen metodo txarra. Gertatzen zen ere batzuetan leihoa gertu bazenuen enaren jirabira zuri-moreak begira egoten ginela, eta berriketara jotzean aldameneko ikaskidearekin puntuak galtzea eta hauek pilatzean zigorren bat izatea.

Musika klasea eta kanta entseiuak ere oso garrantzitsuak ziren gure formazioan. Pentagramako notak irakurtzen eta kantatzen ikasi genuen eta elizkizunetarako koru ederra osatzen genuen. Tiple tinbre pollita omen nuen, gero ahots aldaketarekin baritono bidea hartuko zuena.

Eguberriak iristen zirelarik Kolejioan bertan gelditzen ginen eta klaserik ez zegoenez, abestiak eta teatro piezak prestatzen genituen, lehenik geuk gure rolaen testua papereratu ondoren. Gustora egiten genuen gainera ahalik eta kaligrafia hoberenaz.

Oroitzen naiz nola sortu berria zen Euskaltzaindiak antolatu zituen Euskararen egunak 1921eko irailean 4etik 8ra, eta jaia izan genuen kolejioan, gaztelaniaz idatzitako programak halaxe zioen: *En el salón de actos del Colegio de los Padres Jesuitas de esta villa tendrá lugar una velada euskérica literario-musical con arreglo al siguiente programa.*



Goizetik Nikolas Ormaetxeak hitz egin zuen euskal metrikaz eta Telesforo Aranzadik Euskal Herriko triku-harriez. Arratsaldeko lauretan pala partidua izan zen NAVARRETE eta SARRIONAINDIA alde batetik eta ALTUBE eta ETXABURU bestetik . Gauean jendez beteta zegoen gure saloian entzun genituen:

Bilboko Elola sestetoaren sinfonia.

Herri kantik Aurelia de Agirre, Migel Unamuno eta Pedro Barrenak, aipatu seikoteaz eta herriko nesken abesbatzaz lagunduta.

Federiko Belaustegigoitia euskal eskolez mintzatu zen.

Eguzkitza jaunak Felipe de Arrese y Betitia Astarloari eskainitako poema errezitatu zuen.

Durangoko orfeoiak zenbait doinu hautatu jo zituen.

Gabriel de Manterolak berak idatzitako poema bat irakurri zuen.

Eta bukatzeko denak zutik, Orfeoiak eta sestetoak kontzertaturik Iparragirrereren *Gernikako Arbola* kantatu genuen

Betirako txertaturik gelditu zait oroitzapenean egun hau. Larunbata zen, irailak 7, hamabi urte betetzear nintzela, eta giroari zerion, nabari zitzaion euskal zaletasuna.

Aita Jesus Etxebarriak erakusten zizkigun Musika klasean hala euskal kantik (*Ogi zerutik etorrija...*, *Kristo gure*

*errege...*) nola latinezkoak (*Pange Lingua...*, *Veni Creator Spiritus*, *Ave Maris stella*, *Salve Regina...*).

Bere aldetik Aita Migel Sodupek Aita Agustin Kardaberaz hernaniar ospetsuaren *Kristauaren kortesia* eskuzkribuko testu zenbait irakurri eta komentatzen zizkigun bakarrenak euskaraz, beste denak gaztelaniaz baitziren.

Jaungoikoari behar zaion adorazioaren gainean.

Guraso, maisu eta beste mailaz goragokoakin nola tratatu behar den.

Nola tratatu behar deben txikiak haundiakin.

Haundiak txikiakin nola tratatu behar deben

Igualen arteko tratuen gainean.

Garbitasunaren eta apaintzearen gainean

Konbertsazioaren gainean (Hitzak, bada, izan behar debe neurtuak, modestoak, deseo gehiegi, banidade ta txorakeria gabeak...)

Mahaiian eduki behar den kuidoaren gainean

Paseoaren gainean.

Dibertsioaren gainean

Eta hamabigarren lezioa beste honakoa: Guztirako ona dena da, konformatzea pertsona leku eta denboraren zirkunstantziakin.

Latina eta erretorika eta beste hainbat gauza bost urtez ikasi ondoren gehien gustatu izan zaizkidan irakaskintzak iritsi ziren, Filosofiakoak batipat eta Teologiari dagozkionak.

Juan José Urraburu, Zeanurin jaioa, 1844ean hamasei urtekin jesuitetan sartu zen Loiolan. Ez da harritzekoa zeanuritarrek eman baitute Euskal Herrian fraide eta apaizgai portzentaiarik haundienetakoa. Erretorika irakasle aritu zen gazterik eta gero teologia Poyanne eta St. Achel-eko frantses kolejoetan. Ondoren Errromako Unibertsitate Gregorianoan bederatzi urtez irakatsi zuen, eta 1887an itzuli zen Espainiara non erretore izendatu zuten Valladolideko ikastetxean, gero Oñan eta Salamankan irakatsi zuelarik. Hemen hamabi urtez. Azkenean Burgosen hil zen 1904ean lan haundi bat burutu ondoren.

Bere obra nagusiak, *Institutiones Philosophicae* deituak (Valladolid, 1890-1900) zortzi liburuki ditu eta gai orotarikoak tratatzen: Logika, Ontologia, Kosmologia, Psikologia, Teodizea eta beste. Denak latinez, ohiko zen bezala garaian baina benetan eskuz esku erabiltzen genuena Razón y Fe errebistan 1901ean eta hurrengo urteetan argitaratu gaztelaniazko laburpenak izan ziren filosofiaren lekuaz beste zientzien artean, materialismoa zientzia eta filosofiaren aurrean, Konpainiaren pentsamoldea dotrina eskolastikoen gainean gorputzen egitura sortzeaz, eta abar. Antonio Madariagak itzuli zion ere eta argitaratu Madriden 1901ean honako titulua: *Principios fundamentales de antropología*.

Gure irakasleek errespetu haundiz aipatzen zuten eta irakurketa gomendatzen, eta batez ere bere *Compendium Philosophiae Scolasticae* liburua erabilia izan da bai Espainiako bai eta atzerriko jesuiten eskoletan. Eta komentario ugari izan ditu garaiko filosofoen partetik. Funtsean bere obra monumentu bat da Suarezren eskolari eraikia, errorerik, akatsik gabea eta euskaldun baten zentzu komunaz jantzia, ahalegintzen zen modu apalean armonizatzen zientzia fisiko eta kimiko modernoek gorputzen barne konposizioaz esaten dutena kantitate eta kalitateen errealitate ez funtsezkoekin.

XVIII. mendean Manuel Larramendik eta Agustin Kardaberazek hizkuntzalaritza eta historiaren aldetik egin zutena bezala, hau da, Andoaindarrerren Euskal Gramatika *El Imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* deitu zuena Salamancan argitaratua 1729n eta *Diccionario trilingüe del castellno, bascuence y latín-a*, Hiztegi hirueleduna 1745ean Donostian moldiztegitua, bai hernaniarraren *Eusqueraren berri onac eta ondo escribitceco, ondo iracurteco eta ondo itzegiteco erreglac*, 1761ean Iruñean plazaratua, maiz erabiltzen genituen gure lehen idazte entseiuetan. Beraz bagenituen ereduak jarraitzeko jesuiten artean, baina iristen zitzaizkigun atzerritarrak ere maite nituen.

Hogeita bat urte nituela Bilbotik ezagutzen nuen Migel Unamunorekin eskurtsio bat antolatu genuen Santillana izeneko herri batean dauden kobazulo batzutara, Altamirako leizezuloetan murgildu ginen eta bertako ilunbeetan sartu ginelarik Migelek esan zidan:

— Hemen euskaraz hitzegin behar da, hau izan baitzen mendetan leku hauetan mintzatutako hizkuntza.

Eta kobazulo haietatik irten arte esplikazio guzti-guztiak euskaraz eman zizkidan, nahiz eta garai haietan nire euskara oso eskasa eta txarra izaki. Bisita 1930eko irailaren erditsutan izan zen, jada udazkenean sartuta, 65 urte zituen Migelek eta hogeitabat nik. Geroago irakurri izan nuen *Revista de Santander*-en memento hartaz oroituz idatzi zuen poema:

¡Ay! Bisonte de Altamira  
te tragó el león de España;  
fue por hambre, no por saña  
y el león ahora delira  
porque en su sangre te lleva,  
troglodítico bisonte  
bestia salvaje en el monte,  
sueño mágico en la cueva! [...]  
¡Ay, España, monasterio  
De ciegos y lazarillos,  
Tus leones en castillos  
Nos mataron el misterio !

Giro politikoa oso nahasia zen Errepublika aldarrikatu zenez geroztik 1931ko apirilaren 14an (egun bat lehenago Eibarren), talde radikalek zenbait eliza eta komentu erre

baitzitzuten batipat Katalunya eta Madrid aldean, eta 1931ko abenduaren 9an II Errepublika espainolak onartu Konstituzioaren 26. artikulua betetzearren Niceto Alcalá Zamora presidentek dekretu bat sinatu zuen 1932ko urtarrilaren 23an, non Jesusen Konpainia, alegia jesuitak, erakunde juridiko gisara deuseztatzen zen, hauen ondarea nazionalizatuz.

Comillaseko Unibertsitate Pontifizioa Erromaren babespean zegoenez jabetzaren galtzeaz libratu zen baina han zeuden jesuita batzuk alde egin beharrean aurkitu ziren. Ondorioz jesuita zenbait euren erresidentzia eta egoitzak utziz seminarioetara hurbildu eta hauetan babestu ziren, hala nola etxe partikularretan. Ofizialki 1932ko otsailaren 2an abandonatu zutelarik egoitza, etxeko errektore Salamankako Magistrala izendatu zuten Aniceto de Castro Albarrán.

Durangoko ikasketak bukatu nituelarik Comillasera joan nintzen. Gogoratzen naiz nola Comillaseko irakasleak euskal nazionaliston etsai amorratuak ziren, adibidez, Aita Delgado, zeinak esaten zigun seminarista euskaldunei, si no sois españoles, ya estáis marchando de este Seminario. Alegia, espainolak ez baginen utz genezakeela berehala seminarioa. Irakasle hauetako bat zen ere Aita Dionisio Dominguez Filosofiaren Historia irakasten zuena.

Erromara Unibertsitate Gregorianora zenbait apaizberri argi joaten ohi zen ikasketak burutzera eta halaxe egin zuten Alberto Onaindia, Jesus Enciso, Roman Orbe eta beste hautatuek...Ni neu Gasteizeko Seminaria iragan nintzen,

Erromako bidea eta jesuitena luzetsi egin bainuen. Hemen jende jatorra, jakintsua eta euskaltzalearekin topo egin nuen.

Don Migel Barandiaran ataundarra errektore orde, Lekuona anaia oiartzuarrak (Manuel eta Martin), Antonio Pildain lezotarra Teologia irakaslea, diputatu Gortetean, gotzain izatera iritsiko zena eta Kanariar Uharteetan desterratua. Don Manuel Lekuona oiartzuarrak hebraiera eta euskal literatura irakasten zigun. Martin Lekuona, ni baino bi urte zaharrago zena, Gasteizko seminarioan ikasketak burutu ondoren 1932an apaiztu zen. Gazte-gaztetatik hasi zen euskal kulturaz arduratzen, eta apaizgaitegian zela Gymnasium aldizkarian idazten hasi zen. Artikulu eta poema ugari plazaratu zituen bai euskaraz bai eta gaztelaniaz 27tik 31raino. (“La división del trabajo”, ”Idearen gizartetasuna”, “Erljioa aserre-iturria?”, “Iturri baten edestia”, eta beste...). Hala latinoen nola filosofia eta teologia ikasten zutenen, eta zenbait irakasleren artean osatzen zuten errebista, literaturari, kronikari eta ikerketei leku emanaz.

Giro honetan Joakin Azpiazu jesuita donostiarrarekin batera artikulu luze bat idatzi nuen “Los círculos de estudios AVASC” deitu genuena eta argitaratu. *Gymnasium*-en jarraia izan zen *Idearium, Revista de investigación, síntesis de ciencia religiosa* aldizkarian 1934ean.

Joakinek lehen ikasketak Donostiako Maristetan egin ondoren batxileratoa Tuterako San Frantzisko Xabierren ikastetxean burutu zuen. Jesuiten Konpainian sartu eta 1915ean apaiztu zen, doktoratua Filosofia eta Letretan 1913an lortuz, eta

Eskubidean 1918an. Urte honetatik aurrera Deustoko Unibertsitatean irakasle aritu zen Ekonomia politika eta Ogasuna ikasgaiak irakatsiz. Madrident *Fomento social* fundatu eta *Patronos y obreros* liburua argitaratu zuen 33an, non propietatea edukitzeko eskubideaz eta lanari buruz dotrina katolikoaren arabera mintzatzen zen. Betiko gai eztabaidatua. Hamar urte lehenago Donezteben euskararen egunean, 1923an hain zuzen, hitzaldi txit interesgarria emana zuen: “Euskera zarraren apurtxoak”.

AVASC (*Asociación Vasca de Acción Social Católica*) honek, zeinaren buru izan baitzen Martin Lekuona, proposatzen zituen estudio taldeei buruzko artikuluan, Azpiazuk eta biok adierazten dugu euskal langile, arrantzale eta laborariei zuzendua dagoela programa. Baina azpimarratzen dugun bezala zirkulua ez da klase bat, non batek hitzegiten duen eta besteak entzuten, baizik eta denek ikasten duten eta parte hartzen duten lekua eta erakundea. Zuzendaria apaiz, abokatu, mediku edo kulturako pertsona izan daitekeelarik gai izan dena eztabaidak zuzentzeko eta dotrinaren alde ilunak argitzeko. Eredu gisara ipintzen genituen Belgika eta Katalunya, eta gomendatzen genituen liburuak eta irakurketak honakoak ziren: Leon XIII.aren 1891eko *Rerum Novarum*; Pio XI. aren *Quadragesimo anno*, 1931koa, eta jada hirugarren edizioan dagoen Joakin Azpiazuren *Direcciones pontificias*, non sarrera historiko xume batez aitasainduen entziklika nagusiak aurkezten eta argitzen zituen.

Programaren arabera hirugarren ikerketa astean Gizartearen eraketa eta antolamendu ideala aztertu genuen,



eta laugarrenean Bizkaiako Ekonomia, azpimarratuz nola garatu ziren Bilbo, Bermeo eta Lekeitio aldean untzigintza 1925etik 31ra, eta Bilboko esportazioak, azken urteetan 1929tik 32ra, Ingalaterra, Holanda, Belgika, Estatu Batuak eta Alemaniara zuzenduak izan zirenak.

Hogeita hiru urte nituen eta jada doktoradutza prestatzen hasia nintzen Bilbora joan nintzenean Lehen Aberri Eguna ikustera eta ospatzera familiarekin, Bazko egunez, 1932ko eta ukiturik ikuskizunarekin honako bertsoak idatzi nituen:

ABERRI EGUNA 1932

Biotzetik zehar Bilbo erditik

Odola doa Jendetza.

Aire egoan joko garbian

itxas txorien bizitza.

Asi gara gu bider bizitzen

Asmo gorrikin kolkoan.

Konprenitzen dut nola Euskadi

bizi den nire gogoan.

Euskadi, asmo gorriak, sozialak, jendetza, dira hitz giltzak eta nire bihotza hunkitzen duten gai nagusiak. Lauki inpresionista bateko irudi solteak marraztuko bailituzkeen. Ildo honetatik hurrengo urtean Iparragirrereren omenez ospatu ziren Urretxuako IV. Olerti jaietarako 1933an eratu zen olerki gudara bidali nituen beste bertso xume batzuek, zeinak epai-

mahaiaren on-iritzia aurkitu zutelarik beste zenbaitekin eta *Bost Lore* Beljikan zegoen Frantzisko Etxeberria jesuita irabazlearenarekin batera agertzeko meritua aurkitu baitzuten, hona hemen nola deskribatzen nuen elkarrizketaren bitartez nintzen poeta gazteak (GOGOIA) Sabino Aranarekin (S) alderdi jeltzailearen sortzaile mirestuarekin, neukan solasa.

#### BIOTZ-IZKETA

Gau ixil baten Sabin abotsa

nabaitu neban biotzan.

Maite dardaraz urduri neukan

biotz-txoria kolkoan.

Zugatz ostoak aize zakarrak

astindu ditun bezela;

Sabin abotsak astindu eustan

ene barrunbe epela.

Ahots leunari erantzun naiez

“nun ete zagoz” ninotsan.

SABIN: “Otzez geixorik zure begira

egon nago ibai-ertzean.

Lanbroe bide legarraz

zear ibai-ertzera ninoian

Ta ibai alderantz ninoialarik

itz onek txir-txir gogoan.

SABIN.: Ibai ertzean otzez geixorik

zure begira natzazu.

GOGOA: Baña ilun ontan biotz begiak

ikus zaikie t´ezautu?”

SABIN.: Aurrera gogo ire begira

maitale antzo natzaik ni.

Eztok ikusten ibai leiarrak

argi printzaok edaki?

Neure gorputzak gau ilun ontan

Sortu dau izpi zuria

Eusko biotzen su aberkoia

izpitxu onen semia...

Auzpez-gurturik Sabin itzala

isla be islatu yatasan.

Iru margoizko izpi gartsuak

ene begien leiarran.

Doktoradutza lortu nuelarik eta Lehen Meza bezta  
haundiz Mundakan eman, nire ikasketa sozialekin jarraiki nahi

nuen eta Lovainako Unibertsitate Katolikora joan nintzen. *Universitas Catholica Lovaniensis, sapientiae sedes*, delakoa 1425ean sortua zen bertako zigiluak adierazten duenez, Jakituriaren egoitza. Leuven ere deitzen zaio nederlanderaz eta Bruselasko ekialdean kokatua dago, Flandrian hain zuzen, eta herrialde anitzetako ikasleak etortzen dira, Salamanka europarra kontsideratu izan delarik.

Donostian bazen 1930ean sortutako aldizkari abertzale bat EL DÍA izenekoa eta irakasle eta politikari aski interesgarriekin aurkitu bainintzen bertara kronika et artikuluak bidaltzen hasi nintzen eta bertan hasi ziren plazaratzen 1933ko abenduan eta 1934ko urtarrilean.

Kronikak *Postales extranjerias* bezala bataiatu nituen. Lehenak “La reforma del Estado en Bélgica” du izenburutzat eta kontatzen du nola izana nintzen Bodart-en mitinetan, hau da, Cherleroteko diputatu katolikoaren hitzaldiak entzuten. Nola langile kristauek hartu zuten beren gain Estatuaren aldaketaren erresponsabilitatea, balentriaz eta erabaki sendoz. Eta Bodart-ek isiltasun haundi baten erdian aldarrikatu zuela: Hautatu behar badut Parlamentarismoa eta Faszismoaren artean hobesten diot argi eta garbi Parlamentarismoari. Eta une honi entzule guztiek zutituz txalo zaparrada batez erantzun ziotela.

Beste batean nioen nola haundik egun gutxitara entzun zuen Lovainan hizlari bera, zeinak kritikatzten zuen nabarmenki katolikoak kontserbadoreegi jokatzen ari zirela, eta beren dotrinak ahultzten partidu liberaleko partaideak

eureganatzearren. Bere aldetik partidu liberalak egindako Biltzar ezohizko batean azaroaren 19an aldarrikatu zuen beraiek izan zirela lehenak eskatzen Estatuaren erreforma.

Lovainako eskaparateetan ikus zitekeela Paul Crockaerten *La Réforme de l'État*. Eta batzuek erreforma hori honako dileman zutela laburtu: ROMA ALA MOSKU. Eta jarraitzen nuen gaztelaniaz, — hemen baitauzkat gordeta artikulu haiek —:

Unos entienden por Roma el fascismo, y otros el catolicismo. En estos momentos de confusionismo en que algunos “charlistas” y “escritores” quieren confundir la Roma del Papado con la ROMA PAGANA del fascio, es necesario que los intelectuales católicos expongan con valentía y resolución que el fascismo sacrifica el ciudadano en aras del Dios-Estado, que no es el Dios (de la Roma del Papado) de los católicos.

Lo decimos esto, porque vemos que las derechas españolas han empezado a jugar al fascio. Quieren canalizar el renacimiento católico por los cauces totalitarios y absorbentes del fascismo. ¿Medios? Presentar al fascismo como la única tabla de salvación.

Eta honelaxe amaitzen nuen: Frente a los libertarios” y “a las falanges nuevas y vigorosas del fascio” ... *L'état populaire, travailleur, chrétien... et basque. Voilà.*

“Leaders obreristas”, 1933ko abenduan 21eko artikuluan kontatzen dut nola azaroaren 12an ezagutu nuen Ganten “Ligue des travailleurs chrétiens”-en Kongresuan Colens jauna hizlari gisara, zeinak goraiatu zuen demokrazia eta

gaitzetsi diktadura. Nola elkarrizketatu nuen beste egun batean eta azpimarratzen zidan hark sutsuki bai gizonezkoen eta bai emakumezko langileen artean egin beharrezko dotrinaren zabalkundea.

Berriro 1934ko urtarrilaren 7an, igandez, *Postales extranjerias* sailean miresten dut Lovainako ikasleek egiten dutena, estudiatu eta liburutegira joateaz aparte, alegia, talde ikerlariak eta kritikoak sortzea. Nola Crokaert senatoreak salatu duen Kongresuan Gobernu diktadura ekonomikoaren esklabo delako. Halaber ikasle batek nola salatu duen biziki ere Gobernu honek daraman kolonizazioa Congon. Baita ere nola ageri den eskaparateetan abenduan André Malraux idazle frantsesaren *La condition humaine*, Goncourt sariaren irabazlea...

Aldiz oroitzen dut nola Comillasen, hots, *Colegio Cántabro de Santander* deituan, 1933ko uztaietan izan ziren jardunaldi batzuek non Lozoyako markesa mintzatu zitzaigun “El Imperio español en los siglos XVI y XVII” gaiaren inguruan.

Goraipatzen dut ere euskal mugimendu errenazentista, non gaztedia den buru eta aitzindari, hala nola, Agirre, Kareaga, Landaburu, Monzon politikoen artean. Lauaxeta, Kortajarena, Barrenso, Garro literatoak. Onaindia eta Jauregi propagandistak. Estornes Lasa eta Garate historialariak. Aitzol eta Artetxe literatura kritikoak. Filologoak, kazetariak eta beste.

Sailaren azken artikuluari *Bide Barriak... o los estudiantes vascos en Bélgica* deitura eman nion. Kontatzen dut nola igaro

dugun Gabon gaua Liejan, eta zergatik atzerrian ez duten ezagutu behar nor garen euskaldunak. Eta waloiak, flandriarrak, ukrainiarrak eta polakoak tartean direla antolatu dutela hitzaldi bat Euskal Autonomiaz. Azkenean denek txalo beroak jo zituzten une luzez eta ausartu nintzaion galdetzera aldamenen neukan lagun waloi bati:

– Ez duzue, bada, esaten Acción Católica delakoak ez duela politikan sartu behar?

Eta honakoa erantzun zidan irribarrez honek:

– Politika al da bada, *mon ami*, bere herriaz mintzo dena entzutea? Abertzaletasuna eta Erljioa politika guztien gainetik daude.

Artikuluaren bukaeran Alberto Onaindiriari eskaini Lauaxetaren *¡Itxasora!* poemaren bukaera ezarri nuen gaztelaniaz, zeina euskaraz honakoxea den:

Barrero esi daigun ludijaren gerrija,

Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.

Itxaruak berua euzkotarren ontzija

Goguak nausi diran argitasun goiraño.

Eraman beza euskotarren ontzia itxaropenak. Mundua goi gogoeta askatzaileen bitartez hesitzeko esperantzarik ez zitzaidan falta bada, sorterritik urrun egon arren.

Bukatu zen atzerriko ikasketa garaia eta ikasiak gauzatzer deitu ninduten apezpikutegitik, eta Artziniegako herrira bidali, non arrapatu ninduen gerra zibilak.

Egun batean, gerra Afrikan biztu berria zelarik Jose Antonio Agirrek Bilbon bildu gintuen apez abertzale batzuek egoera latz eta kritiko hartan gure iritzia jakin nahiean baitzebilen. Eta honela esan zigun:

— Jakin nahi nuke zuen iritzia auzi honetaz: gerran Francoren alde ipintzen bagara Estatutoa galduko dugu; gorriekin elkartzen bagara, berriz, erlijioa galduko dugu. Zer komeni zaigu egitea?

Benetan horrelako planteiamenduak eginez tentela izatea beste erremediorik ez dauka pertsona batek. Halakoxea zen Agirre, baina eskerrak denak ez zirela hura bezain ximpleak.

Garai honetan Bilbon kolore askotako kazeta ugari argitaratzen zen, EUZKADI zen bat. JAGI-JAGI zen beste errebista ANV (Acción Nacionalista Vasca) taldeko jendeak argitaratzen zuena, non parte hartzen zuten Eli Gallastegi “Gudari” taldeko zuzendariak, Kandido Arregik, Manu Sotak, Trifon Etxebarria “Etarte”-k eta beste zenbait idazlek arduraturik zirenak mugimendu sozialekin eta kontsidera dezakegunak EAJ-rengandik saihesturiko ezkerreko talde gisara. Hau itxi zenean, eta gerra sutagar gori-gorienean zegoela, izenez aldatu zen eta PATRIA LIBRE – ABERRI AZKATUBA deitura hartu zuen, Trifon Etxebarriak hartu zuelarik zuzendaritza

Aldizkari honen pentsamendu politikoa lau zutabetan oinarritzen zen: independentismoa, antiinperialismoa, antikapitalismoa, eta antifaszismoa. Laizismoa zen EAJgandik



bereizten zuen beste jaiduretarik nabarmenena, eta gure lema eta helburua hauxe zen:

*Vascos, uníos y haced Libre a Euzkadi.*

Hemen Polixene Trabudua, Jordan Zarate, Agustin Zumalabe eta beste zenbaitekin parte hartu nuen nire idazkien bitartez 1936an abenduko lehen alean eta 1937ko beste zenbakietan apirila arte, AGUR eta Arri-Larr laburdurak erabiliz. Ez ginen kontent Estatuto batekin soilik, hots, sortuberri zen Jaurlaritzarekin, baizik eta independentzia osoaren zale ginen. Madrیدهko Gobernutik guztiz aske izan nahi genuen. Bestalde, bakezale ginenez, ez genuen uste gerra zibil hartan parte hartu behar genuenik.

Idatzi nituen titulu batzuetaz oroitzen naiz: “Absurdos del capitalismo vasco: pobre y rico”, “La universidad social vasca”, “El régimen del salario”, eta beste. Belgikako gizarte zerbitzuetako eskola katolikoak nola funtzionatzen zuten ikusia nuen, bai eta Alemaniako ikerketa ekonomikoak ezagutzen. PATRIA LIBRE-ren azken alea 1937ko apirilaren 2an irten zen kalera, 14. zenbakia zen eta esloganen artean honakoa dakar:

*Pro Independencia . Gora el Frente Nacional.*

Halaber, euskal hitzokin bukatzen zen aldizkaria:

*Erri batek bere izkuntza galtzen ba du, beste baten jopu egin dalako da. Erri jopu baten seme izan nai al dezun?*



## KONTZENTRAZIO ESPARRUAK

**A**RABAKO herri txiki batean nintzela, Artziniagan hain zuzen, lehertu zen gerra zibila. Herri honetan Anaia Maristen junioratoan kapilau lanak egiten ari nintzen. Gerra aurretik erlijio elizkizunetara jendea joaten zen aski erregulararki, hoztasun antzeko zerbait nabarmentzen zen arren, eta herritar batzuek ez ziren Mezatara joaten eta ez zuten Bazkoarekin betetzen ere. Antzinako Patronato batek bi kolejio mantentzen zituen. Bat fraideek, eta bestea monjek gobernatzen zutena. Hauek, beraz, monopolizatzen zuten lehen heziketa. Fedearekiko epeltasunaren kausa, hoztasuna hobeto esateko gura baduzue, bertan aritutako apaiz batzuek aski moralitate eta fundamentu eskasa adierazi zutelako eta besteak politikan sartu zirelako aitzakia argudiatzen zuten.

Gizartean ez zen inolako arazorik lan arloan. Gehienak laborariak ziren eta Garai abizeneko jauntxoaren maizterrak ia denak. Eta azken garaietan maizterrak nausitzen ari ziren, beren baserrien jabe bilakatzen erosketen bidez.

Politika mailan gehienak abertzaleak ziren, ondoren karlistak zetozen, eta azkenik frentepopularrekoak. Eta gerra

biztu zenean nazionalistek eta frentepopularrekoek Defentsa Taldea eratu zuten. Honek zenbait atxiloketa burutu zituen, tartean anaia maristak, zeinak behartu baitzituzten mendian lan egitera lubakiak idekitzen. Hauetarik anaia sukaldaria preso hartu zuten, lanegitera ukatzen baitzen, eta *Cabo Quilates* presondegi bilakatu itsasuntzira eramán zuten, eta hemen hil egin zuten oraindik Eusko Jaurlaritza osatu gabe zenean. Artziniegan detenituen artean hil zuten bakarra izan zen.

Esan daiteke Artziniegan inork ez zuela borrokatzen ideia politikoak eraginda. Hemen talde politikoak hain zeuden kutsatuak herrikoikeriez, txokokeriez, pertsonen arteko harremanen ixtorioez, non hauen ezberdintasunek sortzen zuten nola halako interesa. Azken finean frankisten taldeetako bezala kontsideratu eta preso hartutakoen kontrako ekintzek mendekio pertsonalak bezala jo zitezkeen bakarrik.

Nik Artziniagan 1936ko urria arte iraun nuen. Garai honetan elizkizun guztiekin konplitzen nuen Maristen kaperan, hala nola Mendietako elizan ohi bezala. *Nuestra Señora de la Encina*, hau da, Arteako Gure Amaren bederatziurrena ere ospatu genuen, Artziniagako miliziano sozialista eta komunista batzuen mehatxuak gaindituz. Denbora guzti honetan sotanaz jantzita ibili nintzen, beste apaizak etxe partikularretan ezkututzen ziren bitartean, Don Pedro Luis Bengoetxea ezik.

Parrokiako elizan igandeetan soilik ematen zuen Meza bikarioak, esan bezala beste apaizak izuak harturik ez baitziren elizatik agertzen ere.

Urria iritsi zenean Portugaletera joan nintzen. Herri honetako apaiz guztiak ihesean zebiltzan, Don Hilario koadjutorea eta Ospitaleko kapilau zen Don Salvador Lertxundi ezik. Herriko sozialisten beldur ziren azken egunetan hondar zakuak babesleku eta parapetoetaraino kargatzera behartu baitzituzten. Jendea ez zen batere pozik desertzio hauekin. Halere, ez genituen elizkizunak erabat abandonatu, eta garai normaletan bezala ari ginen. Ni jada sekularrak bezala jantzita nenbilen. Don Anjel Txopitea bikarioa ez zen itzuli. Lehenik gordeta egon zen Lekeition eta gero uste dudanez Kamiñaren etxean. Arimen hilabetea eman genuen, Sortzez Garbiarena, San Joseren zazpi igandeak, Aste Santukoak, eta besteak ospetsuki. Jende ugari agertu zen hotsandiko elizkizun hauetara. Aitorpen eta jaun hartze asko. Egun batean goizeko seiretan konfesionarioan eseri eta hamaiketan altxatu nintzen. Bakarrik ordu erdi batez hustu nuen lekua meza emateko. Halere maiatzeko funtzioak eta ekaineko Jesusen Bihotzarenak hotsanditasunez ospatu genituen Francoren tropak iritsi ziren arte. Eta ohartu nintzen gerra aurrera zihoan heinean konfesioak eta komunioak gero eta ugariagoak zirela. Elizdorrea babesleku bilakatu zen, eta gertatzen zen maiz jendea babesleku honetara pasatzen zela erlijio funtzioak ziren bitartean, hau da, meza garaian, bederatziurrenetan eta bestetan, sozialista eta komunista asko igarotzen zirela elizatik babeslekura. Hauek, ordea, beti eliza barruan errespetu osoz portatu ziren, inolako bidegabekeriarik egin gabe. Madrیدهko agindu baten ondorioz Udaletxe sozialistak herri epaitegira eramán zituen parrokiako liburuak. Itzultzea eskatu genuen eta bueltatu egin zituzten.

Bilbaon ia ez zen apaizik sotanaz jantzita zebilenik Eusko Alderdi Jeltzailearekin txit lotuta zeuden eta guztiz ezagunak ziren batzu ezik, hala nola Don Agustin Isusi, Don Santos Arana eta beste batzuk.

Urrian Frantziara igarotzeko pasaporteak eskatu nuen. Gobernuan lan egiten zuen Garmendia jaunak Monzonen partetik honakoa erantzun zidan, *se le dará todo menos el pasaporte*. Alegia, denetik emango zitzaidala baina pasaportetik ez. Beste jentio batzuek burutu nituen baina alferrikakoak izan ziren. Aldiz, ikusi nuen nola Santarderretik zetozen apaiz askok lortzen zutela bere pasaporteak eta Frantziara igarotzen zirela. Adibidez, Zaragozako apaiz gazteak (adin militarrean zeuden Comillaseko ikasleak, bertako irakasleak, sutsuki antiabertzaleak, eta horrela ezagunak zirenak nola aita Delgado, zeinak seminaristei platika batean esan zigun euskaldunoi zuzenduz: *si no sois españoles, ya estáis marchando de este Seminario*, Dionisio Dominguez aita eta beste. Aita Delgadok, Frantziarako pasaporteak lortu aurretik nazionalistak lausengatzen aritu zen, esanez, ez zuela uste euskal abertzaleak hain onak ginenik, ez zuela ordurarte konprenitu euskal arazoa, etabar. Orain berriro Prefekto gisara dago jesuita hori Comillasen, non Antzilu jaun diplomatikoak esan didanez (hau ere Comillaseko ikaslea orain) segitzen duen euskaldunen kontrako propaganda antiabertzalea egiten.

Portugaleten nengoen Eusko Gudarostean kapilau, beraz, tropa frankistak sartu zirenean herrian ekainaren bukaeraldera eta Areatzan eman zidaten *salvoconducto* batekin

egun batzuk lehenago frankisten tropek okupatua zen Bilbaora igaro nintzen eta Don Antonio Pérez Ormazabal Bikario Jeneralarekin hitz egin nuen. Nire egoera agertu nion. Baina esan zidanetik eta lehenxeago Don Luis Agirrerri esan zionetik ondorioztatu nuen Elizaren Agintariak Estatuaren zerbitzuan zeudela, eta beraiengandik ez genezakeela inolako babesik lortu, gertatu zen legez.

Gasteizera joan nintzen, bada, eta hemen berriro Don Antonio Pérez jaunarekin hitzegi nuen, baina Bilbaon atera nuen ondorioa bera jaso nuen. Artziniagara itzuli nintzen. Hemen ikusi nuen bikario karlista. Hau lehenago salbatzen entseiatu ziren nazionalistak, baina karlistak gero zeukan kargutik kentzeko ahaleginetan zebiltzan.

Logroñora joan nintzen. Eta hemen igaro nuen denboran konturatu nintzen herrialde hau gorria dela, alegia, erlijioaren etsaia edo honekin deus jakin nahi ez duena, eta batipat euskaldunen etsai amorratua. Euskal Herriak Francoren aurka egindako erresistentzia zela eta ez zuten bereizten agintarien, beraz erreponsableen, eta aginduen artean, euskaldunei dagokienez. Alabaina, kastillanoez mintzatzen direnean berehala bereizten dute Azaña eta bere agintepean eratuak dauden herriak. Horregatik Franco Euskal Herriaz jabetu zenean, kendu zituen antzinatek gelditzen zitzaizkigun autonomia zaharraren hondakinak, eta euskaraz hitzegitea debekatu zigun ere.

Don Federico Palacio, antzina marista juniorra izandakoarekin, eta gero Falangeko probintzi-buru zenarekin

hitzegin nuen. Elkarrizketa hartatik ondorioztatu nuen Logroñon errebeldeek jende asko hil zutela. Egun haietan ere pertsekuzioak jarraitzen zuten, tabako fabrikatik emakume langile ugari bidali zituzten, Errepublikaren hasieran komentuei su ematen parte hartu zuten aitzakiarekin. Ni 30eko kintakoa nintzenez, Bailen batailoian sartu nintzen kapilau bezala. Eta iraila bukaeran edo urriaren hasieran, ez naiz zehazki oroitzen, Gasteizen Molinuevoko Erreketeen Ospitalean kapilau izendatu ninduten, eta beraz Gasteizera igaro nintzen. Ospitale honetan zegoen berriki apendizitisatik operatu zuten don Saturnino Pérez Onraitia. Honek ahaleginak eta bi egin zituen nire kargua hartzeko, euskal nazionalista nintzela salatu ninduen eta bera, aldiz, gudalostean kapilau bolondresa izan zela. Eta halaxe bada, azkenean lortu zuen nahi zuena, nire ordeztatu baitzuten eta ni *Tercio de la Virgen Blanca* delakoan kapilau izatera bidali ninduten.

*Tercio de requetés de la Virgen Blanca* delakoa Gasteizko elementu tradizionalistek, Orduñako batzuek, Burgosko japistek, hau da, *Juventudes de Acción Popular*, milizia bolondresak edo kamisa berdeak, gailegoek eta beranduago batu ziren nazionalistek osatzen zuten.

Elgetan, Arlabanen, Isuzkizan eta Arabako Billarrealen izan zen borroka, bai eta Landa eta Murgian, baina azkenean Eusko Jaurlaritzako batailoien aurkako pelean erretiratu beharrean aurkitu ziren.



Azaroaren hasieran erabat nekaturik Iparreko kanpainan, Muruzabalera eraman gintuzten atsedean hartzera. Herri honetan tertzioak egunero egiten zuen bere instrukzio militarra, eta soldadu asko egunero joaten zen mezatara eta errosarioa erreztatzen. Milagrosaren bederatziurrenera ere etorri ziren (meza, errosarioa eta eguneroko platikara) eta Milagrosaren egunean askok jauna hartu zuten, eta meza nagusia kantatu zuten erreketek. Hemen egon ginen bitartean ez zen falta izan eskandalorik herriko etxe oneko neska gazte batzuen eta tertzioko ofizialen artean.

Atsedendia Muruzabalen bukatu ondoren Guadalajarara eraman gintuzten eta hemendik urjentzia haundiz Teruelgo frentera, eta gero Huescara. Hasierako bederatzirehundik ez ginen laurehun baizik gelditzen.

Frenteko erlijio ekitaldi bakarra igandetako Meza izaten zen. Moralitatea izan behar zuenetik oso urrun zegoen. Biraua eta maldizioa besterik ez zen entzuten bazterretan. Kaguendiosa gailentzen zen noiznahi eta edonon. Zaragozan korrupzioa gizarte maila guztietan zabaldu zegoen, eta esaten zuten hiru mila puta bazebiltzan hirian zehar, kalez-kale, atez-ate eta edozein kantoietan, baina seguru gehiago ere bazirela. Edozein izkin eta sototan agertzen zirela gizonak probokatzen eta beren faboreak eskaintzen. Areago oraindik frentetik iristen ziren gizatxarren menpe gelditzen ziren, edota erretaguardian aberatsen pribilejio guztiekin plazerez bizi zirenen eskuetan.

Soldaduak frentean ez zebiltzan pozik, erabat nekaturik zeuden, gauza ezteusa bailitzan tratatzen gintuzten eta ez gizalegez. Boluntario moduan apuntatu ziren asko beren etxeetara itzuli ziren, ikusi zuten bezain laster zeukaten adinak ez zituela behartzen gerra egitera, eta gero, noski, miliziara joan zirenean nahi zuten lekua okupatzeko eskaera egiten zuten.

Retagoardian edo frentean bizitzarik lizunena eta donjuanena zeraman soldadu edo ofizial puteroena goraiatuena zen. Frankisten atzeguardia erabat ustela zegoen eta kiratsa zerion.

Gasteizko administratzaile apostolikoa zen Jabier Lauzirika Iurretako semea zenarekin hitz egin nuen Orreagako monastegian eta komentatu zidan Euskal Nazionalismoa Eliza Katolikoaren babesetik eta Jainkoarengandik separatzean Espainia eta Erlijioaren etsaiekin batu zela kriminalki, ez zuela utziko inolaz ere inork Euskal Herrian Espainia mesperetxa zezan, Espainia zela Euskaldunen aberri bakarra, ama bat besterik ez geneukala eta hori Espainia zela, ez genuela beste ama zantar hori behar, eta Espainiako arazo soziala nobleek eta aberatsek antzina moldatu ohi ziren eran, hau da, herrietan erabakitzean seme bat apaiz eta bestea soldadu edukitzea, orduan konponduko zela. Beldur bainintzen denboraren poderioz Francoren jarraitzaileen artean jakin eta zabaldu zedin nik egindako lana arlo sozialean eta noizpait adierazitako nire ideia politikoak eta horrek erakar zizkidakeen disgustuak, erabaki nuen Frantziara pasatzea.

Ez nuen izan oztoporik muga igarotzeko apaiz jantziz. Apezetxez-apezetxe, Luzaide, Arnegi, Donibane Lohizune, Azkarate, Ozaze, Luhuso, Itsasu, Kanbo, Uztaritze, Basusarri eta azkenean Miarritzera iritsi nintzen.

Mila bederatzirehun eta hogeita hemezortziko irailaren zazpia zen. Nire 39. urtebetzearen bezpera, eta Saint Xarles parrokiatik oso gertu, 27 Avenue de la Marne 2an, Casa A. Nousten bildu nintzen Gasteizen irakasle izan nuen don Jose Migel Barandiaranekin eta nire gerrako pasadizuak eta zertzeladak kontatu nizkion.

Donibane Lohizuneko Villa Zubiburu-n bizi zen Alberto Onaindia bisitatzea gomendatu zidan. Egin nion honi bisita, baina markinarrak batasunaren izenean JEL pean bildu nahi zituen apaiz erbesteratu guztiak. Ez ginen, ordea, jaioak biak elkarrekin ibiltzeko. Bera estatutista hutsa zen eta ni independentista, beraz, horrela bukatu genuen solasa, zu hortik eta ni hemendik.

Jaso nuen gutun bat Albertok bidalia eta ANAYAK aldizkariaren partetik haundik egun batzuetara frantsesez idatzitako *Questionnaire pour les prêtres basques réfugiés en pays étrangers*, non nire nondik-norako ibilerak jakin nahiz zebiltzan, eta erantzun nien ez nuela ezertxo ere jakin nahi gobernu frankistak edo beste edozeinek nire bizitzaz eduki zezakeen jakin-minaz, eta erabat independente nintzela, ez nuela inolako taldetan parte hartu nahi, eta aski indar eta kuraia gelditzen zitzaidala bidea bakarrik egiteko. Apaiz

estatutisten sindikatuan ez sinistu arren oraindik Euzkadin sinesten nuela, uzta ugaria zela eta langileak urri.

Zerbaitetaz bizi behar eta bikario ekonomo izendatu ninduten 1938ko urriaren 28an, Landetako Cassen herrian eta honen ondoan zegoen Louer-en. Akizeko artzapezpikutegi barnean zeuden herrixkok Baionatik Mont-de-Marsaneko bidean. Agian Baionako apezpikua zen Clement Mathieu eta Akizekoa zen Henri-Jean Houbaut akordio batera iritsiak ziren mugatik urruntzeko apaiz nazionalistok.

Ia urte osoa Abbé Martin bezala herriko jendearekin eta gazteekin lanean igaro ondoren, alemanekin gerra hasi zelarik *Légion étrangère*-an sartu nintzen.

Nire Odisearen berri nahi baduzu jakin kontatuko dizuet ahalik eta laburrena aspertu ez zaitezten. Erretorika eta luzamendu barik esan behar dizuet, mundu honetan, non moralaren errelatibotasuna jaun eta jabe den, nire gaurko, atzoko eta biharko ekintza hanbat gelditzen baita justifikatua zenbat besteak ahalegindu ziren zilegiztatzeko beren ekintzen moralitatea, frantses, ingeles, iparramerikar, errusiar edo alemanen interesetan. Areago oraindik esango nuke, nire ekintzak askoz ere zuzenagoak izan direla beti oinarritzen direlako zanpatuen, sufritzen dutenen eta galtzaileen defentsan. Euzkadi defenditu nuen, galtzaile zenean, Frankorengandik ihes egin nuen irabazten ari zenean, Frantzia defenditu nuen bere derrotan, Hitlerren kontra borrokatu nuen garaile zenean, eta Alemaniaren porrotaren bezperetan nire ahotsa gizon neutral bezala altxatu nuen, haratago

oraindik garailearen urguilua gaindituz begien aurrean ezarri eta erakutsi nien alemanei Egiaren unibertsaltasuna, gezurtatuz Egiaren izenondo alemana, 39ko koldarrei eta desertoreei mozorroa kenduz, zeinak Aliatuen karrosa garailera igoz nahasten zituzten hitlerismoaren gorrotoa eta herri alemanarekiko higuina. Nire buruaz harro naiz, bakarrik Egiaren eta Justiziaren alde borrokatu dudalako. Deitoratzen dut borroka odisiako honetan nagoen lekura iristearren, gorrotoz beteriko itsasoa, kalbario bidea igaro izana, ...

Gaur atzera begiratzen dut eta animoak ematen dizkiot nire buruari aurrera jarraitzearren. Ez dezazue ahantz modu injustoan dei dezaketela euskaldun bat kolaborazionista Laburdi, Zuberoa eta Baxanabarre okupatzen dutenek. Areago oraindik niri, ni Hitlerren kontra borrokatu zutenen Hego Euskal Herriko euskaldun guti, oso gutiren artean aurkitzen naizelarik. Eta borrokatu nuen kontra mirestu arren, zeren bai baitakit indarra indarrarekin bakarrik bentzutu daitekeela. Eta garaitua ikusirik irabazi nahi izan nituen alemanak konbentzitzen. Egia baitan sinesten dut. Nik bete nuen lehenik nire egitekoa armaz eta gero lumaz. Nire ondoan banituen ere beste batzuek armak erabili zituztenak baina ez zeukaten federik. Gorrotoz beterik ziren. *C'est drôle cette guerre...*errepikatzen zuten. Ez zuten ezagutzen gerraren esanahia. Eta gaur agian ere ez dakite beren gorrotoarena. Nik lehen egunetik aurrikusi nuen gerra honen esanahia, zeina ez baita bizi dugun inperialismoaren gertaldi bat baino. Horregatik jo nuen boluntario gisara frentera. Nire erabakiaren lekuko dira Jose de Arano, Akizeko Seminarioko

errektorea, Dumas kalonjea, Ryan eta Zubizarreta jaunak. Hauekin mintzatu nintzen Pouillonon, Landetako herrixkan, 1940ko martxoan, nire hamabostaldiko baimen militarra ukan nuenean. Frantzia maite nuen, eta eskertuz jasotako abegi ona boluntario enrolatu nintzen. Hitlerismoa eta rossenbergismoa ezagutzen nituen eta ni antimilitarista nintzena, armak eskuratu nituen. 11. Errejimenduan sartu nintzen soldadu ondorio guztiez jakitun. Hau 1939ko azaroaren 6an eratu zen Camp Vallbonnen, Lyondik ez urrun, Touchon jeneralaren manupean.

Legionario deituraren kontra nintzen, zeren eta hitz honek soldatapeko militarra esan nahi baitu, eta geuk ohorezkotzat geneukan bolondres izatea gerrak ziraueno. 11. Errejimenduan ideial baten aldeko borrokalari izan nahi nuen. Baina frantsesek ez zuten konprenitzen ideia bategatik borroka zitekeenik. Uste zuten 11.era iritsitako espainolek bizitzeko adina ez zutelako zela; desesperatu batzuek. Salbamenduko oholera atxikitzen zirenak. Eta nire fitxan idatzi zuten: Adimendu azkarra baina komunista. Antonio Queraltò-ren bitartez nire taldeko soldadoek gonbidatu ninduten errejimenduan antolatzen ari ziren Karl Marx Talde Komunistan sartzera. Garai hartan komunista izateak esan nahi zuen aginte frantsesak pertsegitua izatea, helburu urrun batean ideiala ezarrita edukitzea, hau da, gizonen askatasunaren alde eta Faxismo Internazionalaren kontra borrokatzea. Onartu nuen gonbidapena. Eta nire errejimenduan bolondresak eskatu zituzten Finlandia laguntzera joateko, pentsa.

Maiatzaren 27an alemanen hiru dibisiok erasotu zuten gure infanteriako errejimendua baja ugari pairatu genuelarik. Frantsesen derrota iritsi zen. Verdundik kilometro batzuetara zegoen *La Croix*-en preso hartu gintuzten. 1940ko ekainaren 17a zen. Espainol taldekide batzuek gelditu ziren hilak bidean, hala nola, Mariano Díaz, Armando Cerqueiras eta Pedro Mejías besteren artean.

Belgika eta Alemanian barrena Newbrandenbourgera eramán ninduten. Stalag IIA-ra. Versaillesko 14. Errejimenduko ofizial baten aholkuz Stalag IIA-ko fitxategian apuntatu ninduen esanez Saren jaioa nintzela, frantsesa ongi menderatzen nuenez Lovainan igarotako garaietatik. Eta horrela egin nuen ofizial on hark alemanen pertsekuzioa lejonarien aurkakotik ihes egin ahal izatearren, zeren hauek eta langile espainolak barrakoi berezietan kokatzen zituzten. Berehala komandoa osatzen genuen armakide asko Teterowera bidali gintuzten laborari lanak betetzera, bertan lau hilabete igaroz.

Urrian Stalag IIA esparruan apaiz guztiak bildu zituzten, eta hemen egon nintzen 41eko otsaila arte, iritsi zirenean Tries-etik 50en bat apaiz ihesaldietan laguntzeaz akusaturik, eta Stalag IIA-ko apaizek beraiekin beste komando diziplinario bat osatu genuen Warnemundera bidali gintuztelarik. Hemen 41eko iraila arte egon ginen, eta ondoren Rostock-en zegoen Heinkel-eko esparrura eramán.

Heinkel-eko esparruan Hitlerren garaipenekin eta Vichy-ko gobernuaren propagandarekin liluratuak preso batzuek

*Cercle Pétain* delakoa antolatu zuten. Hau sortu aurretik gure arteko solasetan propaganda haundia egin nuen esparruan zirkulu hau irekitzearen kontra. Nire argudio nagusia hau zen: Gerra presonierak gara, eta nazioarteko itunen arabera ezin gaitzakete behartu politikarik egitera. Zirkuluko buruen kontra modu honetan mintzatu nintzen: *Cercle Pétain* osatzen baduzue, gu salatuko gaituzue alemanei, zeren eta kontzientziaz talde horretan sartu ezin dugunak komunista bezala kontsideratuko gaituzte, eta badakizue zer esan nahi duen Alemanian komunista gisa kontsideratua izatea. Beraz, ikus ezazue zuen erabakiaren larria, eta eskatzen dizuet asmo hori saihets dezazuen. Nire portaera honen ondorioz *Cercle Pétain*-goek alemanei salatu ninduten politika frantsesean nahasten zen *un español rojo* gisara. Alemanek nire gutunak frantses populuaren goratze nazionalista zirela erantsi zioten honi eta ni zigortzea erabaki zuten.

Horrela 1942ko martxoan ejekuzio pelotoiaren aurrean aurkitu nuen nire burua. Kide guztiek ikusi behar zuten nire fusilamendua. Pantomima bat besterik ez zen izan, ordea, Jainkoari eskerrak.

Esaten nizuen bezala, pantomima izugarri haren ondoren, biharamunean Rostock-eko Gestapok Neubrandenburg-eko esparrura eraman ninduen. Eta nire burua defenditzearren honelaxe aurkeztu nintzaien: Espainiatik ateratako apaiza nintzela, baina ez arrazoi politikoengatik, emakume batekin izandako harremanengatik baizik. Honetarako AVASC-eko irainez baliatu nintzen. *Tercio de la Virgen Blanca* delakoan kapilau izan nintzela. Eusko



Jaurlaritzak pertsegitu egin ninduela. Eta aurkeztu zizkidaten gutun guztiak argitu nizkien. Nire bizitza defenditzen jakin nuen ahal nituen medio guztiekin akusatuarentzat bermerik gabeko epaimahaiaren aitzinean. Une honetan nire arma bakarra engainua zen, epaileen gaiztakeriak eta errebeskeria errefinatuak zilegiztatzeko zuena. Garaile irten nintzen ataka honetatik eta harro nago gaiztoak garaitu ahal izanaz.

1942ko apirilean Komando Tivols-era, Neubrandenburg-eko lantegi batera bidali ninduten. Ofizial frantses bat iritsi zitzaigun bisitan. Eta izan genuen asanbladan hitza eskatu nuen oroitzuz espainarrak soldadu frantsesak lez gerra presonierak gisa tratatuak izan gintezen, eta ez preso politikoak bezala. Ofizialak ihardetsi zidan: *La France a beaucoup de mal pour defendre leurs enfants pour se mettre à defendre les étrangers*. Nik erantzun nion: *Mon officier, avec cett' uniforme moi je ne suis pas un étranger*. Eta bileratik alde egin nuen, preso guztiek txistukatu zutelarik ofiziala. Ondorioz egun batzuek beranduago berriro kartzelaratu ninduten. Eta preso hartu ninduen ofizialak esan zidan: Zure onagatik eta gureagatik berriro ziegara eraman behar zaitugu. Eri, 40 graduko sukarrez Esparruko Ospitaletik Kartzelara eraman ninduten eta pentsatu nuen: *kolaborazionistek irabazi ditek*.

Galdeketatik batean ohartu nintzen noraino iristen zen *Cercle Pétain*-go kolaborazionisten gaiztakeria eta maltzurkeria. Hauxe izan zen kasua: preso frantses bat iritsi zen itauntzen ninduten bitartean. Komando batetik zetorren: Zer egin dezaket zurekin, dio poliglota zen ofizial alemanak, eta nola ni espainolez itauntzen ninduen, une batez uste izan zuen ez

nekiela frantsesez. Presoak: Bidal nazazu Ospitalera. Ofizial alemanak: Ez, Ospitalera ez (eta minutu batzu gelditu zen pentsaketan). Zu Diziplina Barrakoira joango zara eta esango duzu gutun bat idatzi duzula, non diozun potroetaraino zaudela preso egoteaz eta prestatua duzula dena ihesegiteko. Gutun hau irakurri duen zentsurak esparrura deituko zaitu eta ihesegiteko ahaleginagatik detenitu zaituela esango dizu. Ni barrakoi horretan nengoenez ikusi nuen nola txakurrak betetzen zuen agindua, eta adiskide frantses bati kontatu nion entzundakoa. Honek esan zidan aipatua frantses patriota fin bat zela. Baina egun batzuetan txakurrak barrakoitik alde egin zuen, ohartu baitzen konturatu zirela haren jokoaz.

Ekintza honek argitu zidan zein nolako kolaborazioekin kontatzen zuten alemanek eta taktikaz aldatzea erabaki nuen. Banekien nola alemanak ziren gure pentsaeraren jakitun, salatari anitz baitzituzten esparru barnean. Baliatuz Frantziara joan behar zuela Quatrebarbeseko aita zurietako fraide bat, esan nion honi, nire Frantziako adiskideei, Cassen, Moliets eta Akizekoei esan ziezaien kasurik ez egiteko jaso zitzaketen nire gutunen hitzei, eta ez jotzeko egiazkotzat noizbait Hitlerren laudoriorik irakurtzen bazuten ere eta lerro artean irakurtzen ahalegindu zitezten. Bigarrenik ofizial aleman baten adiskide haundia zen eta esparrutik aske ateratzeko baimena zeukan Duprez izeneko abade protestante bati sinetsarazi nion espainiar espioitzaren zerbitzupeko ofizial frankista nintzela. Eta albiste sentzazionalista hau berehala barreiatu zen esparruan. Txosten bat idatzi nuen esparruko merkatu beltzaz, *Cercle Pétain*-en ekitaldiez eta partidu frankistaren

zuzendariak. Agiri honekin hauxe lortu behar nuen: nire nortasuna egiaztatzea espioi frankista bezala, *Cercle Pétain*-goek irakurtzen baitzuten txakurrek alemanei pasatzen zizkieten albisteak. Alemanen aurrean esparruko merkatu beltzaren jabe ziren kolaborazionistak desakreditatzea zen beste helburua. Eta bai batzuek eta bai besteak engainatuz kontzentrazio esparrutik irten ahal izatea. Eta halaxe gertatu zen, asmatu bezala. Bidali ninduten langile gisa Zierke-ra laborari lanak burutzera. Hemen benetazko adiskide bat topatu nuen, Brunaud preso.

Neustrelitz-era bisitan etorri zitzaidan Frantzisko Etxabarria 1943ko azaroan. Neubrendenburg-eko presondegitik 1942ko maiatzean idatzia nion gutun bat Comillaseko Unibertsitatera. Dudarik gabe nire garai bateko adiskide Etxabarria nitaz lotsatzen bide zen. Halere, etorri zitzaidan bisitatzera 1943ko udazkenean. Nire komandoko beste preso guztiak bezala ni langile zibil arruntean nintzen bilakatua. Zergatik? Esaten baitzuten langile zibilei hilabete bateko baimena ematen zietela Frantziaratzeko, eta nik pentsatua bainekuan baimen honetaz baliatzea ihesegiteko eta Frantzian barrena gordetzeko. Langile zibil bezala espainol nazionalitatearen karta lortu nahi nuen eta baliatuz espainolek Alemanian gozatzen zuten erraztasunez okasioen bat bilatzea Alemaniatik urruntzeko.

Nire ikuspundua langile zibila bilakatzeko hauxe zen: Tesi eta arau orokor lez ezin zela onartu presoak langile zibiletan bilakatzea, joera honek kolaborazioaren politika lagundu zezakeelako. Eta kolaborazionistak langile zibil

bilakatuak zirenez, zuhur eta beharrezko jotzen nuela politikoki fitxatuak ziren presoak, edo eritasunen batez baliatu behar zutela itxuraldaketa hartaz borroka aukera berri bezala. Borroka aukera berriak sortzearren eta inguratzen ninduen hesia haustearren, beraz, erabaki nuen langile zibil bilakatzeari, zeren eta, ez ote ninduen tratatu, bada, kontseiluko ofizial frantsesak arrotz bezala? Eta gainera egiazki ni arrotza nintzen benetan, estranjerua, ofizialki inongo eskubiderik ez izan arren horrela deitzeko, uniforme frantsesa neramanez eta Frantziarengatik sofritzen ari nintzen bitartean. Berrero euskal politiko exiliatu antifrankista izanen nintzen, eta ikuspuntu honetatik nire ekintzak oro zurituko nituen.

Aberriaren alde borrokan ari den euskaldun bat naiz, bakarrik aritu arren. Moral nazional bat besteek zuten eskubide berarekin nik ere izanen nuen nire moral nazional propioa. Frantsesen edo alemanen moralaren aurrean nire moral euskalduna. Nik badakit moral bakarra dela, gizatiarra eta unibertsalak, baina badakit ere besteek beren moralak justutzat jotzen badute, desabantailan nagoela defenditzeko nire borrokan moral unibertsalaz baliatuz, nire etsaiek bai baitakite nola jokatuko dudan, eta nik, aldiz, ez baitakit nola beraiek nire kontra jokatuko duten. Logika formala alde batera utziz, logika dialektikoa hartu nuen nire bizitzaren interpretaziorako. Hona bada hemen iraultzaile bilakaturik, zeren eta nire etsai guztiak ere halaxe baitziren, iraultzaile.

Etxabarria jaunak, Berlingo elementuekin zeukan adiskidetasuna haundia baitzen hiru lan aukera eskaini zizkidan. *Enlace* kazetaren zuzendari, politika espainolaz

txosten-sintesi bat astero idatzi, edota ofizinista bezala lan egin Stettin-go bulego batean. Hirugarrena hautatu nuen eta 1944eko urtarrilean Stettin-era eraman ninduten.

Berlindik 1944eko irailean urgentziaz deitzen naute Etxebarriaren lagunak diren Wilhelm von Faupel jeneralak eta bere emazte Edithek, eta proposatzen didate *Enlace* kazetaren zuzendari izatea. Frantzia jada liberaturik zen eta Francok bere politika aldatua zuen. Honako galderak planteatu nizkion nire kontzientziari. Kargu hau hartu ahal dezaket? Egiaren alde borrokan ari den gizona bezala onartu ahal dezaket? Eta nire erantzuna baiezkoa izan zen. *Enlace* kazeta erabat antifrankista izateko baldintzapean, hau da: borroka tresna bat. Lehen orriburuan ageri ziren uztarria eta geziak kentzekotan. Eta frogatzeko aukera izan nezan nazional-sindikalismoa nazional-sozialismoaren itzulpen edo plagio bat zela. Nazional-sozialismoa baino indartsuagoa zela, ze teokrata izanik nazioarteko katolizismoaren laguntza baitzuen. Inork ez zuen ideia hauek sistematikoki adierazi, eta mementuko egoeraz baliatuz betebeharrak bat bezala kontsideratu nuen. Inor ez zen oraindik ausartu errejimen totalitario baten barrenetik beste antzeko errejimena erasotzera. Erabaki nuen, Egiaren alde borrokatzen duen gizon legez, okasio hain bikainaz baliatzea errejimen frankistaren egia aldarrikatzeko. Borroka tresna bat sortzeko. Euskaldun bezala onar ahal nezakeen *Enlace* kazetako Idazle buru izatea? Ez ote nintzen eroriko kolaborazionismoaren bekatuan? Nire erantzuna ezezkoa izan zen. Zeren eta kolaborazionista den Aberria okupatzen dutenekin

kolaboratzen duena. Euzkadi espainolek eta frantsesek okupatzen zuten. *Enlace* kazeta borroka antifrankistaren tresna bilakatzea neukan esku artean, ez bainintzen jada Francoren kolaboratzaile. Arazoa argiturik eta euskal moralaren arabera planteaturik eskaintza onartzea erabaki nuen eta 1944eko irailaren 10ean argitaratu nuen *Enlace* berriaren lehen alea. Uztarririk eta gezirik gabe lehen orrian. Balmesen eta Vázquez de Mellaren hitzez frogatu nuen Espainiako barne politika kanpokoaren morroi, jopu zela.

Hurrengo aleetan bortizki erasotu nuen errejimena frankista: “Escuela de sofistas”, “Raza, revolución”, “Palabras del Caudillo” artikuluetan. Kafearen eta gasolinaren estraperlistak salatu nituen, zeinak Berlingo Espainiar Enbasadatik zuzentzen zituzten beren eskumenez, balija eta pasaporte diplomatikoez eta beste tresnez baliatuz, zilegi ez zen trafikoa burutzeko. Nire buruaz harro nintzen. Francoren kontrako borroka modu berriak asmatzea lortu bainuen. Kazeta, mila ale soilik saltzen zuena nik hartu nuenean, hamabost egunetan 30.000 ale saltzera iritsi zen. Nire borroka planteamendua zabalagoa zen. Espainia barnean zeudenekin harremanetan hasi nintzen. Espainiara bidaltzen nuen batipat kazeta. Eta nire helburua frankisten artean zatiketa sortzea zen. Hala nola Francoren kontrako borroka nituen armen bidez. Donostian eta Bilbaon espioitza franco-nazia egiten zutenak salatu nituen. Espainian ziren politika alemanaren zuzendari edo kooperatzaile eraginkorrenak. Ofizialen artean bazela talde bat birritan nahi zuena sortu División Azul berri bat. Falanjista espainolek zeuzkaten suntsitze metodoak.

Zeintzuk zeuden De Gaulle-ren atentatuaren atzean, etabar. Aurreikusi nuen gerraren ondoren gertatuko zena, eta gertatzen ari dena O.N.U.-n, dokumentazio ezagatik ezin direla frogatu benetazko gertakizunak. Hau, noski, borroka egunetan informazio zerbitzuak behar bezala eratzen jakin ez zutenen erresponstabilitate haundian zetzan.

Sobietar Batasuneko Armada gorria Berlinera inguratzen ari zelarik erabaki nuen hiria uztea. Dokumentazio faltsuaz baliatuz eta militar arropak bulegoan eskegita utzi eta jantzi arruntez aldatu ondoren, alde egin nuen 1945eko martxoaren 12an. Oinez iritsi nintzen Münchenera eta Innsbruckera. Münchenen Italiara joateko biltzen ari ziren espainiar nazionalitateko SS-ko soldaduekin topo egin nuen. Beraiekin batu nintzen Italiako frontera igarotzearen, eta Tervisiora, italiar lehen herrira iritsitakoan ihes egin nuen beraiengandik hiru egunez aizkolari batzuekin ezkutatuz Tervisioko mendietan. Jakin izan nuenean tren geltokian lan egiten zuen langile batengandik SS espainolak alde egin zutela Tervisiora jaitsi nintzen eta kamioi batean Udinerantz abiatu nintzen.

Nire ideia Milanera iristea zen. Kamioiak Pordenonera eraman ninduen. Herri hontara 1945eko apirilaren 10ean iritsi nintzen gabeko hamabietan. Pordenonen Antonio de Queraltòren deituraz borrokatu nuen proletalgoaren alde, zeren eta atzerriko hizkuntzetan, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanez aditua bainintzen, Ditta Croatoko zeta fabrikan komertzio korresponstala bezala lana aurkitu nuen. Francoren gobernuaren suntsiketa itxaroten nuen,

edota Italiara ezagunen bat iristen bazen berarengana aurkeztearren.

Hauxe izan zen, bada, nire borroken, nire gerra garaiko bederatzi urte luzeen bizitzaren laburpena.

Jakin nuen prentsa veneziarraz Kristau Demokraziaren Erromako Batzarraren berri eta euskaldun zenbait ere bertaratuko zirela eta nire gerrako pasadizo eta jokaerekin *Memorandum* bat idatzi nuen. Erromara jaitsi nintzen eta batzarrean zegoen Xabier Landabururi eskura eman nion, baina honen hasierako hitz polliten ondoren geroago ez ninduen errezibitu izan nahi ere ez Erroman ez Parisen, ez eta pasaporterik nire izenaz zabaldu gura.

Nire ideologiaren lau zutabeak argi eta garbi adierazten nizkion: 1) Proletalgoaren funtzio historikoaren aitortzea, 2) Euskal proletalgoaren funtzio nazionala aintzat hartzea. 3) Euzkadiko batasun politikoa eta fronte nazionala. Eta 4) Nazionalitate iberikoen konfederazioa, errepublika espainiarraren banderapean.

Genuan Ameriketarako asmoz denboraldi bat igaro nuen, lehenik Via Cassimiron eta gero Via Cairolin, biak hiri barnean, Eusko Jaurlaritzaren partetik erantzun zehatzen zain. Esaten nion Landabururi nola prest nengoen *Euzko Deia*-n iragarritako Monzonen liburua italieratzeko eta Milano, Torino edo Genuako aldizkari zenbaitetan itzulpenak argitaratu ahal izateko. Kandido Arregi *Jagi-Jagi* aldizkariko zuzendariarekin harremanetan jarri nahi nuen, edo Aita Goenagarekin baina ez zidan zuzenbiderik eman.



Denbora irakurtzen, eta itzultzen igarotzen nuen hala nola nire adiskide izan zen Juan Larrearen *Evasión* poema, *Iges*, eder hura...

Aize aurkariek

Astin-astin jotzen dituzte

Ene karabelen

Oihalak.

Parisera ere itzuli bat burutu nuen Baionan aurkitu nuen Thalamasen gomendioz, baina Landaburuk ez ninduen errezibitu nahi izan ere. Erbesteko bideak itxita neuzkan ia erabat eta pentsatu nuen etxeratzeko garaia zela eta bertan borrokan egiteko Euzkadiren alde, bakoitzak bere askatasuna eta pentsamendu gogoetak gordez. Azken finean itzuli egin nintzen sorterrira. Nire bateltxoa itsaso zabalean aize zakarren kontra nabigatu eta gero iritsi zen abiada portura.

Ni beti borrokan aritu izan naiz, nahiz eta egoera oso zaila izan. Inori ez diot kalterik egin, eta besteek egindakoa pairatu beharra gertatu zait. Pertsegitu nautenak, iraindu eta bizitza ezinezkoa ia egin didatenak barkatzen ditut. Hain da erraz gerra egitea Londres Irratia entzunez ! Aberri Euskaldunaren alde bakar-bakarrik borrokatu nuen eta borrokatzen jarraitzen dut. Okerraren kontra borrokatu dut Okerra zegoen lekuan inorekin itunik egin gabe eta baliatuz beti mementuko aukerez. Bortizki borrokatu dut gainera, baina etsaiak gorrotatu gabe, ziur sentitzen bainaiz Egian, eta gauza sentitzen naizelako edonor komentzitzeko Egiaz, eta

ondorioz ez dudalako inongo beharrik etsaia akabatzeko. Amaitzen nuen nire gogoeta eta biziaren zertzeladen gutuna pozik nengoela adieraziz, bizirik nengoelako inoiz nire eskuak odolez zikindu gabe. Eta ez nuela uste borrokan zuzenki parte hartu zuten gudari guztiek gai zirenik gauza bera esateko.

Ameriketaratzekeko portu ona izan arren Genua, bertatik partitu baitzen Cristophoro Colombo ere, nire saioek potto egin zuten, eta Bilbora itzultitakoan ama bisitatzera, aita hila baitzen 1937tik 47rako hamakarda horretan. Gotzainari ere bisita egin nion eta honek desterratuta bidali ninduen Kordobara.

## KORDOBAKO DESTERRUTIK

**A**LBINO GONZÁLEZ y Menéndez-Reigada, ezagutuago Frai Albino bezala, eta eginiko obra sozialengatik oso maitatua, hiriak eskultura bat eraikiko ziona, nire osaba aita Larrinaga bezala dominikoa zen. Cangas de Narcea-n jaioa 1881ean eta 1946tik 1958ra Kordobako apezpikuari zegozkion lanetan aritu zena.

Dotrina alorrean txit tradizionalista izan bazen ere, gizarte hartan maila sozialean burutu zuen lana haundia izan zen. Bi auzo berriren eraikitzea bultzatu zuen etxe bizitza unifamiliarrentzat, eliza anitz errestauratuta gelditu ziren, eta patronato bat sortu zuen eskola ugari zuzentzen zituena. Halaber Hornachuelos-eko seminario tipia eraikiarazi zuen apaiz belaunaldi berriak formatzearren.

Kordoban ez zen, eta ez da, prozesiorik falta Aste Santuetakoez aparte. Hauetariko bat *El Corpus Chiquito* deitzen dutena da. Dominikoen bazuten aspaldiko denboretatik pribilegio bat, *Corpus Christi* eguna, Bazko Berri txikia euskaraz, antolatzekoa. Jakina denez ostegunez ospatzen zen hura, igandez hau. San Agustinen elizatik ateratzen zen prozesio eukaristikoa, non aurkezten zitzaion herriari metro t´erdiko zilarrezko Kustodia. Dominikoen *Corpus chiquito*

famatuaren antolatzaile nagusia garai hartan dominiko bat zen, nola ez, Frai Jose Maria Yañez deitua.

Prozesioa San Agustin eta Santa Marina auzoetako kaleetatik igarotzen zen, eta bidean aldaretxoak altxatzen ziren, adibidez Santa Marina elizako atari nagusian, Vianako Jauregiaren burdinsarearen aitzinean eta San Agustin plazan. Leku hauetara iristean otoitz batzuek errezatzen genituen eta himnoak kantatzen. Aldare hauek antolatze eta apaintzearen kostua ugari ziren kofradiek ordaintzen zuten: *Orden Tercera de Santo Domingo de Guzmán*; *La Fervorosa Hermandad del Santísimo Cristo de San Álvaro*; *La Cofradía y Asociación del Rosario Perpetuo* eta *La Hermandad de Nuestra Señora de las Angustias Coronada* deituek.

Besta Berri txikiaren jaia, beraz, goizeko zortzitan hasten zen *Colegio de la Merced*-eko bandaren korneta eta atabalarien kontzertuarekin. Diana joaz goiz goizetik auzo osoa igarotzen zuten. Hamarretan zen Meza Nagusia, eta sermoia gehienetan dominiko hiztun batek edo hauen heren ordenakoren mintzo jario arindun batek ematen zuen. Okasioen batean gonbidatu ninduten eta neronek prestatu eta bota nuen sermoia ule barik mihian.

Meza bukatutakoan kortea auzoetatik igarotzeko honela antolatua zen: lehenik Guardia Munizipala zaldiz, gero korneta eta danborrarien banda, ondoren Dominikoen komentuko Gurutzea, auzoetako kolejiotako haurrak, San Frantziskoren heren ordena, Santo Domingoren heren ordena, Adorazio Etengabekoak, San Albaroren anaiarte,

San Rafaelen anaiarte, Laborarien anaiarte, Nekeetako Ama Birjinaren anaiarte, (*Real Venerable e Ilustre Hermandad Servita de Nuestra Señora de los Dolores Coronada y del Santísimo Cristo de la Clemencia...*), komentuetako monja orden ezberdinetakoak, parroketako apaizak, lehen jaun hartzea zuten neska-mutilak, eta Kustodia Santua paliopean zeramaten seminaristak.

Gorte erlijioso luze hau, kasuila eta arropa dotoreenez jantzia, noski, Frai Albino apezpikuaren begirada eta zuzendaritzapean mugitzen zen. Egun honetarako iragan kaleetako auzokideek etxeak kare zuriz pintatzen zituzten, balkoi eta leihoak brodatuz eta tapetez, Manilako zetazko xalez, lorez edo bestelako zintzilikarioz betetzen zituzten eta Santisimoa igarotzean arrosa hostoak aidean botatzen. Arratsaldean zazpi t´erdietan errosario santua bukatutakoan kanpaia bortizki jo eta dantzatuen hotsen doinua luzaro etengabe entzuten zen noiz behinkako suzirien jaurtiketa artean.

Iritsi nintzelarika Kordobara gerra kontseilu bat pairatu behar izan nuen, zeina zelebratu baitzen Kordobako Errege Kristauen Alkatzarreko Mosaikoen Aretoan, egoitza kartzela ere zen garaietan. Testu bat sinarazi zidaten, eta hau izan zen amnistia lortzeko baldintza bakarra. Fray Albino adiskidearen presentzia eta babesaren konpainian ongi pasatu zen une garratza zitekeen gertakizuna.

Kordobako gobernadore zibila, Jose María Revueltak 1950eko abenduan ohiko ziren Eguberritako Kanpainarako Junta bat izendatu zuen, familia pobre eta behartsuen

elikadura prestatzearren. Eta komisio honetan Francisco Cabrera Mugimenduko buruordeak, Fernando Kindelan elizbarrutiko *Caritas*-eko zuzendariak, Juan José de Colinak, Benefizentziako idazkariak, José Sanz Ostiz hornikuntza teknikariak, Alejandro Darocak, CORDOBA egunkariko erredaktore buruak eta ni neuk parte hartu genuen.

Egunkari hau pobreen artean arroza, garbantzuak, patatak, olioak, irina, piku ogia, mantak, oinetakoak haurrentzat eta beste banatzeko mugitu zen. Diru biltzea 1951ko urtarrilaren erdian 803.265 pezetetara iritsi zen. Eta gelditzen ziren soberakinekin mila pertsona baino gehiagoren artean neguko hilabete luze eta hotzetarako janaria banatu genuen. Monja mertzenarioek antolatzen zuten banaketa, *Auxilio Social* erakunde ezaguneko emakumeek laguntzen zieten. Euren esku zegoen ere eskoletako eltzee eta lapikoen prestaketa.

Carlos Castilla del Pino psikiatrak Kordobako *Dispensario de Psiquiatría* deitua 1949-az geroztik zuzendu zuen ikerketa neuropatologikoan sakonduz, psikiatriari buruzko modu berriak aztertuz eta liburu ugari plazaratuz. Zerbitzu buru zen Oposizioak atera zituen geroztik eta bertan iraun zuen jubilatu zen arte 1987an. PCE-koa zelarik, klandestinitatean zegoen partidu komunista espainolekoa, Psikiatria katedra maiz ukatu zitzaion, eta itxaron behar izan zuen Felipe Gónzalezaren gobernu sozialista iritsi arte, 1983an lortu zuelarik hainbeste urtez desiratutako katedra.

Berarekin bilera bat baino gehiago egin izan nuen garai haietan elkarri errespetu haundia adierazten geniolarik. Gerra

kontuak maiz aipatzen genituen eta aleman kontzentrazio esparruetako zertzelada aski sineskaitzak iruditzen zitzaizkionak kontatzen nizkion, baina argi eta garbi zeukana, aldiz, agirian zegoen, Kordobara nire ideia abertzaleengatik desterratu nindutela.

Garaiko bizimoduaren berri jakitearren hemerotekak, oroitzapenak, eta eleberriak badira, ez dira ohi izaten beti oso fidagarriak. Halaberetsu garai batean zinema areto guztietan filmearen aurretik NODO-n albistegiak ematen zituzten, errealitatearen ikuspegi manipulatu, aldatuxea edo bederen mugatua. Estatuko gertaera garrantzitsuenez eta Franco jeneralisimoaren inaugurazioez, hala San Rafaelgo zubi berriaz, ganadu feriez, dantza flamenkoen ikustaldiez, futbol partidu ospetsuenez, nola Córdoba Sevillaren kontrakoa, etxe merkeen jabe berriei sindikatu buruak giltzak emate zeremoniaz, zezen korridez, zezenlari eskolaz, non torero famatu izateko lehiarako ehun eta hogeita sei ikasle apuntatuak zeuden, etabar, etabar.

Mila bederatzi ehun eta berrogeita hamahiruko apirilaren hogeita bederatzian. Francisco Franco eta Carmen Polo senar-emazteak bisitatu zutelarik Kordoba, Vianako Markesaren jauregian hartu zuten ostatu. Ni behartua aurkitu nintzen, jauregia Santa Marinako elizaren ondoan baitago, Meza eta komunioa ematera jauregiko kaperan. Eta Francok, antza denez edo zehatzago izatearren Doña Carmen emaztea, nire sermoiarekin hunkiturik, beraiekin bazkaltzera gonbidatu ninduten. Solasean aritu ginen honetaz eta hartaz, Doña Carmen batipat, oso berritsu baitzegoen egun hartan, Franco

Galiziako erromeriez mintzatu zitzaidan, ni gerra zibilaz eta egoera sozialaz. Gerra zibila aipatzen nuen bakoitzean Francok zuzendu egiten zidan *El Alzamiento Nacional* esamoldea erabiliz. Denbora gutxira Castilla del Pino zuzendu zitzaidan jakitearren nola joan zitzaidan elkarrizketa jeneralisimoarekin, eta galdetu zidan:

— *¿Cómo fue el desayuno con el sapillo?*

— *Es un hombre listo, sabe escuchar y está interesado en los temas sociales.*

Itaundu zidan ere zer gosaldu genuen eta erantzun nionean kruasana eta katilukada bat txokolate Don Carlosek orduan, halaxe tratatzen baikenuen elkar, berak Don Martin eta nik Don Karlos, esan zidan:

— *Pues no ha podido salirle a Franco más barata su conversión.*

Adiskide ginen baina ziria elkarri maiz sartzen genion. Bazen Kordoban jende jakintsu asko arlo guztietan. Diputazio Probintzian biltzen ziren ia astero eta hitzaldiak *Boletín de la Real Academia de Córdoba de ciencias, bellas letras y nobles artes* errebistan jasotzen zituzten. Horrela 1955eko apirilaren 2an Manuel Enríquez Baños zuzendari zelarik, Jesus Iturrioz jesuitak Metafisikan katedratiko zena Oñako Unibertsitatean *La Unidad de Europa y los movimientos federalistas* gaiaz ihardun zuen. Ni ere aritua nintzen gai horiek lantzen, Lovainako urteetatik, baina batipat Elizaren Historia menderatzen nuen aski ongi doktore izatera iritsi bainintzen. Horrela urte bereko



errebistan historia artikuluan batean Kordobako elizaren xehetasunak ematen saiatu nintzen.

Sainduen ohoretan eraiki tenploetan komunitate mozarabeen bizitza intelektual, izpirituala eta soziala nola antolatzen zen argitzen, zeren eta Mariana historiagileak zioen arabera *se les dejaba vivir según sus leyes y conservar la libertad primitiva*, bere lege eta usadio propioen erara bizitzen uzten baitzitzaien. Halaber Prudencio de Sandovalak bere Historian (*Historia de los cinco obispos*. Pamplona 1615) VIII. mendean, 734. urtean hain zuzen, idatzitako autonomia estatutua aipatzen du Alboacen Iben Maumet Alhamar, Espainiako garaile eta Kantabriako dominatzaileak latinez idatzia, non argi erakusten zuen arabiarren talentu politikoa, berezirik bakoitzak bere esfera, eta eskubide positiboa, tradizio mozarabeak aro bisigotikotik gordetzen zuen *liber judiciorum* ezaguna eta jatorkiko eskubide ohiturazkoa, gure egunetara Foruak izenez iritsi dena.

Santa Marina, nire parrokiako eliza, XIII. mendean eraikia izan zen VII. mendean tenplo bisigodo bat kokaturik zegoen lekuan, eta gero antza denez mezkita mozarabe bat ailtxatu zuten bertan, baina azken honetaz ez da arrastorik ere gelditzen. Erdi Aroan muga egiten zuen hiriko murrailarekin eta Axerkiarekin (*Al-Sarquiyya*, arabieraz Ekialde esan nahi du). Honek X. mendean sei errebal bazituen hiritik kanpo ziren egoitzekin osatuak: abular, Furn Burren, al-Bury, Muniyat Abd Allah, rabad al-Zahira eta Muniyat al-Mugir.

XIX. eta XX. mendean errestaurazio lanak egin ziren erdi-aroko kutsua eta antza mantentzeko erabiltzen zirenak, aldenduz zerbait 1680ko eta 1755eko lurrikaren ondoren egin zitzaizkion aldaketa barrokoetatik. Hau da, ez nabarmentzearen sobera kanbio berriak, eta kutsu zaharra mantentzeko.

Egitura errektangularra dauka eta hirualetoduna da, erdikoa aski garaiago delarik. Uztai zabal batzuek bereizten dituzte hauek eta bakoitzaren goiko partean argia sartzeko leiho bat idekitzen da. Eredu fernandinoari jarraikitzen diote. Ez daukate gangarik eta estalki zureztatuak dute. Arotzaren kontratua 1495 ingurukoa da eta artistak Pedro Fernández zuen grazia. Estalki kasetoidun orijinala XVII. mendean ganga puntadunaz aldatu zuten Domingo de Pimentel apezpikuaren aginduz.

Aurreko alde nagusiak lau kontrafuerte trinko ditu, untzien bereizketa nabarmentzen dutenak, eta rosetoi eder bat erdian. Aldare nagusiari begira ezkerrean (ebangeliokoan) ageri dira gotiko zaharraren eraikitze moldeak rosetoi txikiago batekin. Eta eskuinaldean (epistolakoan) sakristiaren atea idekitzen da, XV. mendean jaso, Orozkotarren Kapera gisara. Eta XVII. mendean Sebastian Vidal arkitektoak absidea aldatu zuen bertan Benavidestarren kapera moldatzeko. Kanpaindorrea XVI. mendekoa da, Hernán Ruiz gazteak eraikia, eta Leopoldo Austriako apezpikuak ordaindua. Kapera Nagusiaren erretabloak Antonio Gazteluren pinturak eta eskulturak dauzka.

Santa Marinaren elizaren aurre-aurrean, Conde de Priegoren plazan, 1956ko maiatzaren zortzian gertatu zen Manolete toreadoreari eskainitako monumentuaren inaugurazioa. Manuel Álvarez Laviada zen eskultorea, eta noski diskurtso ofizialak ez ziren faltatu. Hauek iraun zuten bitartean eliza dorreko brontzezko kanpaiak etengabe jira-biraka edukiarazi nituen, agintariekin nintzen bitartean, solasak aditu bai baina arretaz entzun arren ezin zitezkeelarik ia konprenitu. Eta galdetu zidanean parrokiako batek biharamunean zarataren zergatikakoa, parrokiak gertakizuna ospatzeko modurik egokiena iruditu zitzaidala erantzun nion. Esan bezala Santa Marina Plazaren aurrez-aurre ageri da Manolete zezenlariari egindako monumentua, zenbaiten iritziz oso gustu txarrekoa dena, *horrendo pisapapeles de tamaño descomunal*, munstro bat Don Carlosek idatzi zuen lez, ingurunea itsusten duena.

Elizkizunak arreta haundiz eta fidelki zuzentzen nituen eta liturgia guztiz modu ortodoxoan eramateaz aparte, ez bainuen gogoko besoak gurutzaturik eduki, ezer egin gabe zeremoniez aparte Akzio Katolikoaren babespean *Círculos de Estudios*, Ikerketa taldeak antolatu nituen. Hauetan langileen arazo sozialak eta politikoak argi eta garbi planteatzen ziren, geroxeago Juan XXIIIak erakutsitako bidetik *Mater et Magistra* (1961) eta *Pacem in Terris* (1963) entzikliketan, pobreen eliza aldarrikatuz.

Eguberriak iristen zirenean herriminak zirikatuz ohitura berezia hartu nuen, hau da, adiskide zaharrei eta ezagunei Kordobako inprimategi batean moldatutako bertso

batzuekin Gabonak eta Urte Berria zoriontzekoa. Hona bada  
hemen garai hartan idatzita kontserbatu dudan soneto  
moduko hogeitabertsolerroduna,

### AN URRUNEAN:

An urrunean, itxaso zero alkartze marra oztinan,  
ene begien egarri-minak jo-muga dauko benetan.

Nere begien asetze ori biotzarena ez da izan.

Biotzau, itsu, edertzalea areago beren baitan.

Aizeak edo emoten deutso ikusezinen usaina.

Gura dot izan zoriontsu, nik, zegaz ere ez dakitela.

Egarri-minak, esan be dinost nunbaiten urik dagola.

Kerizpe baltzak apalki dager goitik datorren argia.

Bateltxoaren aurrerakoa leunki ikutu dot, gurariz  
zorroztua-ta, uhinen altxoan urduri, urrun egarriz ...

Gurari zorrotz, asezin onek nora nai du joan egarriz?

Bakarrik dakit gizonak, joan doala berez, jatorriz.

Nere gorputzan gurari aunitz ibilli dabiltz trumilka.

Sua zainetan, odol iraki, ainbat gauz onen lorea.

Eguzkipean, gizona-gizon, argi ta euriz uztaia.

Lur magalean, mundua mundu, garitik dator garia.

Gaur, kili-kili, nere oinetan betiko naia ibiltzeko.

Esaiozu ba eguzkiari inoiz ez argituteko ...

Esaiozu, baita itxasoari geldirik beti izateko.

Eztakit nora, bainan bait-noa gizon jaio nintzalako.

Nostalgiaz beterik sorterriari begira moldatu nuen poema hau, zortziko nagusitan idatzitako bost ahapaldiz eraikia. Hiru irudiz apaintzen ditut bertsoak, oso edizio txukuna den triptikoa osatuz. Hiru domina dira. Lehenean gorostia ageri da, eguberriko sinbolo gisara kontsidera dezakeguna. Eta beste biak greziar kulturarekin atxikiak dira. Belaria, poema itsasoari dedikatua denez, poetaren haurtzaroko irudimena kresalez eta itsasuntziz hornitua zegoenez, eta hirugarren irudia olinpiadetako diska jaurtikilariarena dugu.

Don Carlos eta bere inguruko komunisten bidaide izatea suertatu zitzaidan eta kolaboratzaile izan nintzen beste kordobatar engaiatu bat gehiago lez *Práxis. Revista de Higiene Mental de la Sociedad* titulupean bizitza laburreko errebistan. Hemen parte hartzen zuen ere José Aumente Baenak, beti bere burua kristau bezala aurkeztu zuena, bereziz noski, katolizismoaren jokaera batzuetatik. Kristau pentsamendua lotzen zekien justizia sozialarekin.

*Práxis*-ek urte t´erdi soilik iraun zuen eta sei ale plazaratu zituen. Bertan elkarrekin bizi ziren azken orrialdean Bidalien ekintzak, Antonio Machado, San Agustin, Ortega y Gasset, Erich From, San Jeronimo, Isaias igerlea, Lukacs, Karl Mannheim, eta beste zenbaiten testuak. Azken alea 1961eko

urtarrila-otsailekoa izan zen. Soilik zazpi orrialde zituen eta beste denak zentsuratuak gertatu ziren.

Lehen alean (1960, maiatza) editoriala honela bukatzen zen:

Servir a la verdad, esa es, hemos dicho, la más noble razón de toda reflexión intelectual. La verdad exige, sí, por parte de quien la divulga, fidelidad a sus postulados. Pero exige también, por parte de quien quiere escucharla, pasión para comprenderla. Así sea.

Halaber nik ekonomiaz eta langileez idatzitako artikulua honelaxe amaitzen zen:

Y si en toda economía se reconoce, muchas veces, el valor del mínimo de los imponderables, antes que despedir obreros deben todos pensar si la angustia de los trabajadores frente a la amenaza del paro obrero no merece el eco de simpatía, caridad y justicia, a que son acreedores la inocencia de sus hijos, la piedad de sus mujeres, y la laboriosidad de unos hombres que solamente piden trabajar para poder vivir.

Eta 1960ko azaro-abenduko alean, 4.ean hain zuzen, LIBROS sailean Txillardegiren bi nobela komentatu nituen, eta iruzkin hauei poema bat erantsi eta separata gisara moldiztegiturik adiskideei bidali nien.

Hona hemen:

## 1960KO GABONTZAHARRARI

*Argeliako F. L N. abertzaleeri*

Itoa datzan legez betiko itxaspian,  
urteen erreskadan, lehendik gaurdaino,  
azkenak plast dagi leize barruraino  
gelditzeko gorputsik denborarepian.

Zoinbat gauza, oroien pizu astunapian  
urte bera zaharraz makurruteraino  
barrero gaur gaberdia bihotzeraino  
dala, lurperatzeko igaroen obian.

Bait-dagoz gauzak honen guztien begian  
geiegi direala txarrak, onak baino,  
ikutua itxi deuskuenak arpegian.

Bainan, nire portutik izara zurian  
zehir, doazan txalupok urrutiraino,  
zorionez, bizirik dagoz ohindino.

Gabontzarrari eskaini nion hamalaukoak – bidean galdu den *Landa-luzia* izeneko poesia liburutik hartua dut. Eskaintza bi dauzka. Bat urte zaharrari, eta Argeliako FLN-ko

abertzaleei bestea. Argeliako gerlak 1830az geroztik Frantziako boterearen menpe zegoen Afrikako lurralde honen askatzea suposatzen du, deskolonizazio gerra, beraz, 1954ean sortu eta 1962an bukatu zelarik. Bertan parte hartzen zuten frantses gudalosteek alde batetik, tartean Ipar Euskal Herriko euskaldun askok, zeinek lekukotza ugari utzi zituzten bai bertsoan, bai eta hitz lauzetan Baionan agertzen zen HERRIA astekarian “Argeliako gertakarien ondoan” saila edo Etienne Salaberryren, “Tribune Libre du Prisonnier. Algérie, touche de vérité. La Révolution Intégrale” idatzitakoan. Eta ondoren argitaratu izan dituzten liburuetan hala Piarres Aintziartek, Xipri Arbelbidek, Txomin Peillenek eta Jean-Louis Davantek, idazle ezagunek, besteren artean.

Sonetoan, bada, aipatzen dut nola munduan tamalez gauza txar gehiago gertatzen den ona baino, baina badela esperantzarik oraindaino, zeren eta *nire portutik izara zurian zehar doazan txalupok urrutiraino*. Alegia, euskarazko bertsoek nire aberriarekiko maitasuna adierazten dutenak dira, mantentzen dutelarik argi izpi bat bederen, eta zorionez bizirik dago.

Halaber Txillardegiren nobelagintzaz eman nituen oharretan, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957) eta *Peru Leartzako* (1960) eleberriek daukaten modernotasuna azpimarratzen nuen, Unamunoren *nivolak* eta Barojaren abentura nobelen artean koka daitezkeelarik. Gaurko gizonaren bizi-mina, larria eta bakezaletasuna budista estiloan. Bi heroien fartsak kasu kliniko gertaera sozialean bilakatzen duela, gaur eguneko poeta haundiek (Gabriel Celaya, Blas Otero eta Gabriel



Aresti) tratatzen ohi dutena eta soluzio bidea somatzen eta antzematen dutena.

Maisuki aztertzen duen arren Txillardegik bi pertsonaia nagusi horien psikologia, nire ustez, mereziko zuketena ikerketa osoagoa, radikalagoa, sakonagoa. Ez gelditzea infantilismoan, horrela gertatzen baita ez bada neurtzen egoki gizartearen eragina, barne mundua eta ekintzen zorabioa, praxis literatura honetan desitxura baitaiteke gizakiak bere baitan daukan askatasun ahalmena, berau itoz, zeren eta denak direla giza egintzak kontsideratzearen alde ageri denean, era berean bailirateke ere hobegarri eta aldagarri. Eta mundu hobegoren baten alde lanean sutagar ari diren intelektualen lana eta egitekoa hau besterik ez baita. Hemen eta gaur Txillardegi injeniari eta idazlea ahalegindu da Euskal Herriko gerra ondoko belaunaldiaren partaide bezala, mugak hautsiz europar zabalgunera elkarrizketa kulturala idekitzen.

Eta modernitatearen lerro beretik baina ostertz ideologiko ezberdinetatik belaunaldi berri bat sortu dena, hala nola Gabriel Aresti bere *Maldan behera* poema hermetiko, itxiarekin, non gaur egungo euskal gizonaren bilakaera intelektualala modu alegorikoan ematen den, aurreiritzi razialetarik urrunduz eta askatuz, egia berrietara igo arteraino. Koldo Mitxelena literatur kritikorearen *Historia de la Literatura Vasca* libururaino, edota Europa osoa batetik bestera ibilkatzen duen Joan Mirande kazetariaren itzulpen eta Donostian argitaratzen den *Egan* errebistan ematen dituen artikuluetaraino. Bai halaber Jon Etxaide nobelistaren emaitzetaraino, zeinek aspaldi honetan *Joanak joan* eleberri

orijinala eta Barojaren *Shanti Andia*-ren kezka itzulpena eman dituen argitara. Gizandien obra dela Kultur Errenazimentu hau, eta somatzen dugula Txillardegiren obra literarioa izanen dela serioa, benetazkoa eta kalitatezkoa.

Beste bi artikulu idatzi nituen ere Práxis-en “Eichmann o la sombra de Caín” (1960), eta “Frente al capitalismo los cristianos en vía muerta” (1961).

Lehen artikulua txit ezaguna den historiaz mintzo da. Adolf Eichmann naziaz, Solingen-en 1906an jaio eta Ramla-n 1962an erahilaz. Ezkutatua Alemaniaren derrotaren ondoren Argentinan Mossadek bahitu eta Jerusalemera eramane bertan epaitu eta kondenatu zuten hiltzera. Sei miloi juduen suntsiketaren erresponsibleak judizioan esan zuen bera ez zela erresponsible aginduak betetzea besterik ez baitzuen egiten. Halere urkamendira kondenaturik 1962ko maiatzaren 31an akabatu zuten. Gertakizun honek Hannah Arendt-en liburu hunkigarria sorrarazi zuen, *Gaizkiaren banalitateaz*, deitu zuena, alegia, gaiztakeriaren hutsalakeriaz.

*Errante anduvo por el mundo el nuevo Caín*, hitzekin hasi nuen artikulua, eta bertan kontatzen dut zein nolako inpresioa sortu zuen neskato, emakume eta gizon helduez eratu entzuleriaren artean errebista historiko aleman batetik itzuli nienean kasua. Eta bukaera aldean honako hitzak nerabiltzan:

Extraño, que los racistas hitlerianos y sus vergonzantes defensores nieguen la existencia del pueblo judío cuando estaba recluso en los “ghetos”, y cada uno

de los judíos marcado con la estrella de David. Fueron los mismos nazis, con su persecución de exterminio, — la mayor persecución que ha existido en la historia —, quienes demostraron que el pueblo judío existía. Entonces existían los judíos para exterminarlos, y ahora no cuenta la existencia de entonces para poder juzgarle a Eichmann.

Nola moral guztien gaintik, ongiaren eta gaizkiarenetik aritu zen Eichmann, nola abokatu sofistek zioeten ez zela Israelgo Estaturik ekintza haiek gertaturikakoan, eta horrelako argudio lotsagarritz, baina mundu osoak eskertu duela sei milioien hiltzailearen erresponsiblearen epaiketa.

Bigarren artikulua “*Frente al capitalismo los cristianos en vía muerta*” liburu ttipi bezala, separata moduan argitaratu nuen. 34 orrialde ditu eta sarrera baten ondoren bost kapitulutan banatua dago. Lehenak, *Superación de una organización anacrónica de la propiedad*, dauka titulutzat. Bigarrenak, *Austeridad (La Reforma agraria de Andalucía)*. Hirugarrenak *No todos los españoles deben soportar en la misma proporción los sacrificios que impone la política de estabilización*. Laugarrenak, *El despido de los obreros, elevarlo a la categoría de medio técnicamente conveniente y lícito como pretenden, es una monstruosidad doctrinal*. Langileak lanik gabe uztea modu tekniko komenigarria bezala munstrokeria zela doktrina bezala.

Bi ohar dakartza nire liburutegiko *separatak*. Lehenak, gaztelaniaz 1983ko maiatzan idatziak dio, nola historiak nire iragarpena baieztatu duen, hau da, ezkerren eta sozialismoaren garaipena Andaluzian eta Kordoban, zeren eta alkate eta udaletxe komunistak hautatuak izan diren. Eta zer

egin dugu kristauok? Bigarrenak euskaraz Yolanda izeneko Mundakako andereñoari eskainiak, orrilaren 26an, hauxe dio:

Yolanda, andereño xarmantari:

Ohin ogetabost urte, urtero idatzitako “Círculos de estudios”-etarako eta prestatutako liburuxka honelako bat euren artean, hauxe opa deusat, gure senideen artean dagoen adiskidetasunaren agergarriz.

Bihotzez. Martin Arrizubieta.

Tolosako Lizardi Taldeak Udaletxearen ardurapean Lizardi Poesia saria antolatu zuen eta erabakia 1961eko maiatzaren 28an ezagutarazi zen. Irabazleak honakoak izan ziren: Lehena: Orixe, 2.500 pezeta. Bigarrena: Jose Maria Aranalde, 1000 pezeta. Hirugarrena: Lukax Dorronsoro, 500 pezeta. Alfontso Irigoienek, juraduko erabakia irakurri zuen eta sariak txalo beroen artean banatu ziren. Orixek hitzaldi eder bat ere irakurri zuen, Lizardi zenarekin zeukan adiskidetasuna gogoratzuz, eta bukatzeko Antonio Arruek, *Euskera* aldizkariak dioenez zehazki, hitzaldi bat egin zuen euskal-gauzen alde. Noski, ez ziren falta jaialdi hartan, bertsoak, dantzak, teatroa eta beste solasaldiak baina ez ziren denak kontentu, zeren eta Gabriel Arestik idatzi zidalarik sariaren gora beherak eta zertzeladak aipatuz honako erantzuna eman nion. Ekainaren hasierako lehen egunak izango ziren:

Agur t´erdi, bihotz-bihotzez:

Oraintxe daukat zure gutun azkenena eta samingarria nire eskuetan, Lizardiren olerki-saria dela-ta.

Tribunaleko jaun hoiek epaia emanaz, haien burukeriari eta gustoari segitu besterik ez tute egin, orain hainbeste urte bertsolarien txapelketa batean, saria, zaharrari ordeztu, gazte bati eman zioten bezala, etzekitelako egiazko hizkuntza zertan dagoen.

Purismo itxurazkoaren garbizalekeria, zure kontrari mendekatu da. Baina begizko honek ez tizu bihotz barruko ezereztu behar, bada, ezikasien jakintza, bere moduetan hain bihotz gogorrekoa izaten da, eta egiaren aurpegia ikusteko hain begiaitsua, ezen Txirritarekin behin gertatu zena, gaur berriro berrizta den zuren kontrari.

Baina, Txirrita, beren denpora haretan zaharra zen alde batetik eta bestetik etzekien, jakin ere, nundik-edo bere kontrakoaren iturria eta sorburua zen. Orain aldrebes, zure hauzi horretan, zurekin batera gaztetasuna dago, eta mendekantza eta ostikada horren erroak nun, nolako lurretan, oinak eta anak sarturik daduzkan jakinik, zure bideetan aurrera, beste sari oraindik haundiagoa lortzeko moduan zoaz.

Eta guk lortu behar dugun saria badakizu zein den? Beste edonolako sariak, teiltupeko sariak arbuiatu gaberik, egiazko literatura gure hizkuntzan sortzea.

Helburu eta xede honetan, EKIPO batean elkartu behar ditugu gure ahalak. O., A.I., J.S., T., M., K.E., eta euskaldunen, batez ere berrien, artean, topatuko ditugu errez eta ugari, gure asmo honen zabaleran pozik sartuko direnak. Ez ahatz, apurtu gabe, ez tirela arraultzak frijitzen.

Gurekin dago herria. Euskeraz daukagu guk zer-egin haundia, benetan.

Zure lagun, gaur eta beti. MMA.

Pozik zegoen Gabriel jasotako animoekin, eta idatzi zituen hurrengo poemetarik bat eskaini zidan, 1963ko urtean, hau da, bi urte beranduago. Tolosan ere ospatu zen Orixeren omenezko sarian, Antonio Labaien, Antonio Arrue eta Jose Antonio Loidi jaun epaileek Gabrielen lana hoberenetsi baitzuten, alegia, *Harri eta Herri*.

Antonio Arruek Bizkaiko Diputazioko Bibliotekan eman zuen hitzaldian, 1963ko azaroaren 12an, lau poeta euskaldun aurkeztu eta aztertu zituen: Iratzeder, Mirande, Gandiaga eta Aresti. Noski, Gabrieleak, Lizardi saria irabaztearekin batera, onartze publiko nabarmena jaso zuen goi mailako poeta bezala.

Uda partean Busturian igarotzen zituen egun batzuek Jose Ramon Rekalde donostiar abokatuak Maria Teresa Castells Artetxerekin ezkonduak. Herri honen eta Mundakaren artean lau kilometro besterik ez denez ni maiz joaten nintzen Patxi Artetxerekin berriketan ibilaldi batzuek egitera Sukarrietako hondartza aldera.

1961eko udan Jose Ramonekin topo egin nuen eta *Frente de Liberación Popular*, Felipeak antolatzen ari zenez, euskaraz ze izen ezarriko nion galdetu zidan eta nire aholkuz taldea Euskadiko Sozialisten Batasuna, ESBA bataiatu zuten. Talde hau beste zenbait talde antifrunkistekin federaturik zegoen, hala nola Katalunyako *Asociación Democrática Popular en Cataluña* (ADPC), gero *Front Obrar de Catalunya* (FOC) deitu

zenarekin eta Espainian 1956az geroztik *Frente de Liberación popular* (FLP) izendatuarekin.

FLP-ek 1962an egindako Biltzarrean onartu zituen estatutuetan organizazioak honako lerroak eta adjetiboak hartu zituen: iraultzailea, sozialista, demokratikoa, federalista, laikoa, internazionalista, eta klase zapalduen Frentea eraikitzeko sortua: Talde politiko honen Euskadiko zuzendari Rekalde aipatua eta Luciano Rincón izan ziren, baina zenbait militante detenitu egin zituzten hurrengo urtean, tartean Rekalde bera. Urte batzuk beranduago, Rekalderen koinatua zen Migel Castells abokatua detenitu zuten ere, torturak salatzeagatik eta isuna ordaintzera ukatzeagatik. Taldea barne kontraesan ugariaren eta detentzio zenbaiten ondoren 1969an suntsitu zen.

Mundakan nengoela Gabriel adiskidearen andrea haurtxo batez erditu zen eta *Nerea* izenez bataiatu nuen, San Nereo ere badela kontuan harturik. Egun eder bat ospatu genuen denok elkarrekin, eta poeta bilbotarra xit bihotzbera baitzen lagunetik honela oroitu zen nitaz

POETAK DAUDE

[...] Lehengo domekan

Bilboko fobal ekipoak

Kordobaren kontra

Galdu zuen,

Eta hala ere

Seneka eta

Martin Maria Arrizubieta eta Larrinaga

Eztira

Alaittu.

Udaoro igotzen nintzen hegoaldetik iparraldera. Nire sorterri maitera. Baina bidenabar bisitatzen nituen Donostian eta Bilbon nituen adiskideak. Jose Artetxe Gipuzkoako Foru Aldundiko Bibliotekako liburuzainarekin, 1962ko abuztuaren 30.ean huntaz eta hartaz hitz egin genuen, Euskal Herriko errepresioaz eta euskararen egoeraz, Andaluziako etorkizunaz, kazikismoaz, nola hemengo lurjabe haundiak, terratenienteak, militarrekin ezkontzen ohi ziren, baina itxaroten nuela bai hemen eta bai han gauzak aldatzen joan zitezten astiro hobera.

Gabrielek bai Arantzazun eta bai Mundakan, batez ere hemen, solasaldi luzeak edukitzen zituen Joxe Azurmendirekin eta nirekin ondorengo bertsoetan ageri den bezala:

Nire adiskideak dira

Mundakako elizondoan jezartzen naizenean,

Nire begiak Izarori erregalatzen dizkiot

Eta haiekin mintzatzen naiz luzaro.

Egun batean bertan nengoelarik,

Kopla bat kantatu nion:



Hor zaude apal Izaro  
Hementxe harro Lazaro  
Bizitza berri honetan iraun  
Azi nezazu luzaro.

Saiatu nintzen ni ere zenbait poema idazten eta hauen artean EUSKAL JAUNAREN HITZALDIA titulatu nuen bat, non Poetak bere burua akusatu aulkian topatzen duen, Euskal Herriaren kexua entzuten eta bere bekatua ezin barkatua aurkitzen duen : *saldu neban euskara / lehen neban erdara ... / nire aitaren etxea lohitu dit...* nioen, bai bertsoan bai hitz lauz hainbat kontsiderazio artean.

Garai hartan ez zen gertaldi publikorik Kordoban elizaren partaidetzarik gabe. Eta horrela 1961ean sortu *Peña El Cucharón*, deitu elkarte bedeinkatzea egokitu zitzaidan. Honek zenbait sari irabaziak zituen erromeria eta prozesioak bikain antolatzeagatik eta fundatzailea Francisco Peña Morales zuen.

Salamankako Unibertsitatean Miguel de Unamuno bertako grekera irakasle eta Errektore izandakoaren jaiotzaren mendeurrena ospatzen zela eta han egotea ere erabaki nuen. Omenaldiko ekitaldien egitaraua hauxe izan zen. Lehenik *Requiem* meza unibertsitateko kaperan, aita dominikoek emana eta Salamankako agintari guztiak, gobernadore zibila eta alkatea presente zirela, bai eta Migelen semeak Fernando, Rafael eta Felisa. Kaperan ttiki gelditu zen bertaratu zen jendearentzat.

Erresponentsua amaituta familiarrak, adiskideak eta Don Migelen ikasleak kanposantura gerturatu ginen lore koroa bat hilobian aurkeztu asmoz. Solas batzuek eskaini zizkioten errektoreorde zen Don César Real de la Rivak, eta beste katedratiko batzuek, hala nola Zuzenbide Fakultateko Errektoreorde izandako eta dekanu une honetan zen Don Angel Revillak. Azkenean Letretako Fakultateko ikasle batek Unamunoren poema bat irakurri zuen, eta neuk erresponentsua errezatu nuen Don Migelen arimaren alde.

Hilobiko hilartitzek Unamunoren poema ezagun hura gogoratzen dute:

Méteme, Padre Eterno, en tu pecho  
misterioso hogar  
dormiré allí, pues vengo deshecho  
del duro bregar.

Hala bada, mila bederatzirehun eta hirurogeita lauko irailaren 20an hain zuzen, euskaldun ikasle talde bat bildu ginen kanposantuan, eta Bernardo Estornési gertakizunen berri emanaz bidali nion gutun bat, zeina gerora bere *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco-n Literatura* saileko laugarren tomoan argitaratu zuen:

Unamunoren yaiotzatiko eunurthea ospatzekotz, euskeldun intelektualezko aldra bat, Salamancako ilherriyan batu zan. Egun haretan ber-beran (1964-9-20) *Sprit Nouveau Basque* (Euskal ixpiritu barri) -Gogo barri-mugimendu intelektualea fundatu zala, hogeitamar urthe

betetu ziran be. Segiratzale guztiyen izenean sonetu hauxe  
Unamunoren obi aldean irakurri neban,

### UNAMUNORI

Lurpe gogorrari, kaiolan antzera  
zure txoriya muturik betiko  
egon dagola ... Oraindik Herriko  
phariseoek duten bildurkera!

Zure bizitzak bota dun hitzkera  
betikoaren mugan gain biziko.  
Itxastxoriyek kantuak erdiko  
dutez ekaitzari, zeruko ohikera.

Zure mandatuz, ekaitzen ahotsa,  
itxar egizuz euskeldun gortuak  
beroturikan bihotzen izotza.

Zure doktrinen paradoja urtuak  
pentsamenduaren akuilu zorrotza  
bultza letradun diruri lotuak.

Unamuno maisuari zuzentzen nintzaion eskatuz  
pentsamenduaren akuilu zorrotza izaten jarrai zezan, eta  
loturik dauden izpirituak aska zitzan, Lauaxetaren *Itsasora*  
poema oroitzapenean baineukan une hartan.

Urte honetan bertan, 1964eko abenduan, ARRAGOA *revista vasca de cultura y política*, delakoak aspaldidanik egitasmo zen errebista gauzatuz lehen zenbakia argitaratu zuen PCE-k, bere helburua honakoa zelarik: *a la luz del marxismo-leninismo, aborde todos los problemas concernientes a la vida política, social y cultural en la actualidad, bajo la dictadura que padecemos, y en sus proyecciones futuras una vez lograda su eliminación*. Alegia, egungo gizarteko gai guztiak aztertzea, bai politikoak, eta bai kulturalak marxismo-leninismoaren argitan, eta sufritzen dugun diktadura ezabatzean etorkizuneko egitasmoak ikertzea.

Lehen alean aipatzen zen Miguel de Unamunoren mendeurrena eta Bilboko erredakzioan udazkenean egindako solas-eztabaidak, klandestinitatea zela eta solasgileen izenak Antonio, Bernardo, Demetrio eta Cecilio deituren pean ezkututzen zirelarik benetazkoak. Ez zen, noski, Don Pablo Gúrpide, Bilboko apezpikuaren kritikarik falta, honek bilbotar semearen zenbait idazlan oraindik *Index*-ean ezarriak baitzituen. Aipatzen da ere nola Gabriel Arestik azaroko ZERUKO ARGIAN kritikatzeko zuen Bilboko Udalak ez zuelako inolako oroitzapen jairik antolatu.

Bada errebista honen bigarren alean, Dolores Ibarruriren artikulu baten ondoren (“1890: la primera huelga general en Vizcaya”), lan bat Martin Irumugarrieta (neu nintzen, noski, baina erne ibili beharra zegoen zentsoreekin) delako batek idatzia titulu honekin: “Algunas reflexiones sobre el diálogo entre católicos y comunistas” PRÁXIS-eko artikuluan agertzen nituen ideia berdintsuak errepikatzen nituen. Juan

XXIII aitasantuaren *Pacem in Terra* entziklika aipatuz hasten naiz, non ezartzen diren hastapenak benetazko elkarrizketa emankor bat garatu dadin katoliko eta komunisten artean. Elizaren aggiornamentoaz, hau da, eguneratzeaz eta behar berriei egokitzeaz, langilediaz, eskola demokratikoaz, nazio arazoaz, eta beste, esan bezala baikor bukatzeko eta azpimarratzeko posible dela elkarrizketa. Artikuluak jaso zuen erantzun bat urte pare bat geroago, Ignazio Muruzabal delako batek erantzuten zidan aski interesgarritzat joaz proposamena. Sozialismorako bide euskaldun bat aurkitzea, hori zen gure ametsa orduan. Gabrielena, Joxerena, neurea eta beste kristau engaiatu askorena.

Urte honen bukaeran ere idatzi nituen ohi lez hiru poematxo eta bidalti nizkien adiskideei. Lehena euskaldun guztiei zuzendua, nire harrotasuna adieraziz euskaldun sentitzeagatik. Bigarrenean Izaro gomutan, pozik naiz Maddalen erditu delako eta hirugarrenean Mundaka, nire jaioterri zoragarrijari, oroitzuz ere Axular maisua.

### **1965eko GABONETAKO**

1

Eusko eledun anai danari

Zorionak bihotz bihotzez.

Beti aurrera, atzerantz pausorik ez!

Nik / Baidakit / Benetan / Zer naizen!

Odolak dinost /

Pentsamenduak / Be dinoste.

Eta bihotzak. / Bihotza? / Baitta bihotzak!

Ara ze arro / Ni nagon

Eusko eledun ni naizelako

Eta betiko.

2

Arraintzale bat jaio da!

Gaur dala egun aundiya  
danok dinoe batera.

Portu mandaan jaio da  
argi printza garbiyena!

Ipar aldeko aizeek  
pozez inddartsu barreka

Ortziyan dabiltz idazten  
pranko beuren alegera.

Matxalenek erditu du  
argi seme ederrena.

Bakiyoko mahastiyak  
emon dun txakolin baltza.

Mosuka eta begika  
amaak dun egonera

Kuttuna! Izarrek jan dute

gauaren ilun azkena.

Zertarako muin bahako  
saltoka hari intxaur eza?

Seme bahako etxe utsa...

Matxalenek dun seme bat  
lehenengo olatuak  
gaur Izaron dagoz olgetan.  
Bare aldiya amaitu da  
Umezko negar bategaz.

### 3

Aita Lur jatorra

*Ene bihotzeko Mundakari, nirentzako behintzat, munduko  
herri pollitena. Zorogariyena. Txukunena.*

### I

Mihin bahako aita LURR jatorra  
dialektoen larregiz zatika  
zainetan solas bat duzu bizika  
lur behe, erdi itto eta txistorra.  
Hitz osoen bil, topatze gogorra,  
eder minez ni nabilela irrika  
ba dialekto bat koitzak xirtxika

laburtu ditu berbeen atorra.

Maite eskuakaz ardano zaharra  
artzen dut, belauniko, lakoatik, i  
ikasi minez, Axular Maixuatik.

Guren Herriyak behar dun garra,  
garbitzekotz hitzen arpegi ugarra,  
sorturikan, barriz, hitzok sustraitik.

## II

Herri bizitza, bizi herrikoia,  
niren baitan sortutako sua.  
oroiz egina, gosez bizitua  
behin elduko egunen sentiya.  
Ez ditut moztu egoak. Begiya  
herri inez, errotik, zorroztua  
ontzi bezela, nahitan portua  
zuganantz noha herrizale irriya.  
Zugaitzak zabaldutako frutua  
Munduan eta ... oroizka eldua  
maite zaitut neuk, aita Lur herriya.  
Zagoz erdi, eldunez josiya  
Zuren altzoan, edo zein lekua  
Mundaka, nirentzat zoragarrija.



*Christmas* deitzen antzera moldatu poema hauetan nioen bezala, euskaldun izatearen harrotasuna aitortu ondoren, gorosti abar batek, hiru kandelek eta Santiago bideko erromesarenak osatzen dute eguberrietako iruditegia.

*Nuestro Misal* da argitaratu nuen hamabi orriko beste esku liburutto bat elizara doazenek Meza jarraitu ahal dezaten gaztelaniaz eta bere gaztelaniazko itzulpena Apezpikuen Batzarrak onartua dela dio liburuxkan itsatsi ohartxo batean. Lan hauek eta beste zenbait burutzen baintuen izpiritu idekiz Don Guzmán Reina alkate zelarik afari omenaldi bat ere eskaini zidaten 1965ean.

Kontzilio Vaticano IIa bezala ezagutzen dena 1965eko abenduaren 8an Erroman bukatu zelarik, Frai Albinoren ondoren Kordobarako Juan XXIIIak Manuel Fernández-Conde y García del Rebollar, Puertollanon (Ciudad Real) jaioa izendatu zuen apezpiku. Honek gogo zuen, urte oso mugituak zirenez, biltzea apaiz gazte iraultzaileekin. Hala bada behin han agertu ziren apaiz langile zenbait eta neroni. Propietate tituluen kontra apaiz batzuk hitzegiten hasi zirenean altxatu nintzen esanez hura komunismoa zela. Eta istilua haratago joan ez zedin, apaiz haiek ia denak nire ikasle izanak baitziren, argitu nuen biltzarrean gazte haiek ez zutela propietate eskubidea ukatzen, baizik eta errebisatu egin behar zela, ziotela, zeren eta ez baitzen batere zuzena, ez eta zilegi, XVI. mendean Albako dukesaren asaba zaharren batek moro bati ostiko bat eman ziolako, edo akabatu zuelako, ixtorio honen ondorioz hondasun neurtezinen jabe izan zedin.

Jakina den bezala *Ley de Asociaciones* deitu lege berria 1966an onartu zuen Gobernuak eta honen babesean sortu ziren *Asociación de Cabezas de Familia* izendatzen zirenak, aukera zutenak proposatzeko Udaletxeetan beren hautagaiak. Horrela urte bereko otsailaren 22an ospatu zen Círculo de la Amistad elkartearen presentziarekin afari bat aitzakia zelarik sortzear zegoela eta auzotarren partaidetza haundiarekin Barrio de Santa Marina izeneko taldea bultzatu nuen. Errejimen frankistak uzten zituen arrakala eta zirrikito guztiez baliatu behar zen, noski, eta herriaren kezka bideratu, ahal zen neurrian. Katoliko eta falanjisten arteko borroka aski zabaldu zen, azken hauen indarrak, ordea, oso txitituak ziren jadanik eta beste indar berri batzuek ari ziren gailentzen.

Jarraitzen nuen, noski, uda parteko oporretan Euskal Herria bisitatzen, bai Gipuzkoa, bai eta Bizkaia aldean nire joan etorriak egiten. Eta Donostia aldean, Artetxe eta Zumalabetarrak ez nituen ahazteko. Honekin gerra zibileko, kontzentrazio esparruetako eta eguneko egoera politikoaz solas luzeak egiten nituen, whisky on baten inguruan.

Meliton Manzanos Donostia aldean askok sufritutako torturazailerik ezaguna, ETAk 1968ko abuztuaren bian hil zuen Irungo Villa Arana etxe aurrean, eta albistea berehala zabaldu zen jendartearen. Hurrengo egunean Gobernuak Gipuzkoarako *Estado de excepción* delakoa dekretatu zuen eta askok eta asko pasatu ziren kartzelatik ...

Albistea zabaldu zenean oroitzen naiz Ramon Saizarbitoria *Lur* argitaletxeko eta *Jarrai* teatro taldeko

gaztearekin, eta gerora nobelagile ospetsu bilakatu denarekin nengoela berriketan Donostiako Bulebarrean, Barandiaran Cafetería ondoan. Lagun kuttuna baitzuen Gabriel Arestik bere zuzenbidea edo telefono zenbakia, ez naiz oroitzen ongi orain, pasatua zidan, xit interesatua bainengoen euskal gaztediaren iritzietan. Ikusi genuen egoera oso arriskutsua zela hura polizia edonon baitzebilen esaten eta komentatzen zenez belarriak luze, beraz, berehala elkarrizketa beste baterako lagaz elkar agurtu genuen.

Itzuli nintzelarik Kordobara jarraitu nuen nire apaiz eginkizunekin: Mezak, bataioak, bederatziurrenak, aitorpenak, ezkontzak...Batzuetan nire izena ABC-ren ECOS DE SOCIEDAD sailean ere agertzen zen. Adibidez, Don Rafael Eraso Luca de Tena eta Lourdes Lovera García *la bella señorita* ezkondu nituela eta noski, presente zeudela hiriko indar nagusiak, Don Jose Sotelo ejerzitoko teniente jenerala, Diputazioko presidente zen Don Pascual Calderón, etabar. Lekukoen sinaduren ondoren bazkaria Hotel Meliá-n ospatu zen eta aukera izan genuen egoera politikoaz ere mintzatzeko.

Behin Karlos Santamaria hitzaldi bat ematera gonbidatu nuen Frai Albinoren omenez Kordobara. 1969ko abenduaren laua uste dut zela, bai, San Frantzisko Xabierren eguna ospatzen den biharamuna zen. Santa Teresa plazan abenduaren 14ean inauguratuko zelarik Frai Albinoren omenezko monumentua.

Santamaria doktoreak beste gauza anitzen artean azpimarratu zuen omenaldi ongi merezia zuela Frai Albinok,

eta bera kanpotarra izan arren batzen zela Kordobako hiriak egitera zihoakion omenaldiarekin, justiziako ekintza zenez, zor ziotenak haren ontasunari hiritar guztiek. Intelektual bat izan zela, baina ez erudito bat, jakintsu bat baizik. Nola Frai Albinok maiz zioen, kristautasunak benetan eraginkor izan behar zuela, baita mundu honetan ere. Eta ez zuela uste izan zitekeenik ekintzarik gabeko pentsamendu sozialik, ez eta gizarte ekintzarik gogoeta barik. Bere gizonenganako amodioa obretan zela adierazten, eta egindako lan guztietan.

Esker onezko gutun bat idatzi nion eta makinaz jotako kopia aurkitu baitut hona zehazki zer nioen:

On Carlos Santamaria jaunari, Donostian

Adiskide on,

Egun, Ama Birjinaren besta zakula, zuk idatzitako gutuna eskuratu dut eta irakurtzeaz batera asko poztu izan naz, jakinik, bidaje ona bete egin duzula, eta berriro zurekoen artean zagozela.

Bai-eta gutunagaz, batera *Lehen euskal hiztegi bateratua* eta *La Beata Ana Taigi* liburu biok, eskuratu ere. Bihotzez eskerrik asko.

Zu joan zinatik, zure konferentzia zala eta, komentario ugari eta on onak sortu izan dira eta guzaien aburuetan maixu bezela hitz egin zenduala, eta zuk Fray Albino-z egindako bizizpena danon gustokoa izan da. Berriro zorionak.

Bainan, zeru argitsuenean ere, beti egoten dalako odeiren bat, mindu eta tristatu egin nau emoitien

dauztazun berri hori, zelan Garicanoren alkar izketan ezin zenduan askatu darabilzun prolema.

Jaungoikoa, danen gain. Anita´ri eskatu daroatsut, ea lehen bai lehen J´k soluzionatu leiken, gizonak nahaste borraraste egiten dutena. Beren eskuetan dago.

Eldu zat “Anaitasunaren” azken lumeroa (1969-XI-30´koa) “Umeen eziketea dala-ta” 7 garren orria, nerea da. Eta kolaborazino horretan nahiko nuke aurrerakoan segitu, batez ere, litheratur mihin bateratua kreatora asmotan eta asmo berberan dabilzeneri laguntzeko.

Hitz egin genduazan gai guzieri buruz pentsaki eta pentsaki geldittu izan naz eta natzake. Guziak txit interesanteak. Garrantzi andikoak. Eta gure Herriarentzako bizigarriak.

Eta gelditzen bagara estu estu, Jaungoikoa alkartuta, gure Herriko populuaren alde lana egiteko. Gutxi gara zoritxarrez. Bainan datorrena gazteena izanik, beuren artean, zera berri bat ikusten dalako, baikorra eta otimista naz. LUR bezelako editoriala, lenguaje bateratuaren alde mugimendua, ikastolak, lizeoa, Unibersidade berriak, *Euskal Elerti 69*, puntu positiboak izan be dira. Eta ez edozelakoak, noski.

Rikardo Arregiren *Politikaren atarian* liburua on, eder eta mamitsua irakurten ari eta ari egon be nago. Eredu bikaina Arregiren bizi laburra. Lehenik, nire bizitzan, gure litheraturaren bidez gauza barriak ikasten nagola, eta ez dutela leiduten liburu bat lengoajea lantzearen, gaiak ber berak eraginda baino... Elburu honetaraino elduko nintzakela, ez nuen inoiz pentsa.

Bai-eta izututa gelditu naiz, Mikel Azurmendi-Intxaustiren “Euskal hilobia” irakurriz gero. Hitzaurren dinosku “ene poesia prosa da”. Ez da egia. Egizko poeta baino. Arestiren eskolakoa, sustraiez izanik Frantziako litteratur bigunari idegia dalako edo (Bloy, Sastre, Baudelaire, Rimbaud...) benetan ez da gaur egungoa influentzi hori, bainan alan eta guzi esturianta unibertsitariora dalako, beren egun senti ederran dagola, dirudit.

Zergaitik Mikel Azurmendi-Intxausti lako gizon gazteak, ezin badira sartu hego-aldera, ez dira batzen edo biltzen Leuven Unibertsidadean edo, eta han dagozen euskaldun estudianteen irakasle, *Basque Home* batean letradunen belaunaldi barriak prestatu? Ez da, ez litzakio izango gaitz, Unibertsidade ber beran litteratur aulkia irabazitzea. Ez dut uste, eta zer-edo-zer ezagutzen bai-dut hango aire bereziaz.

Kintana, ara hor, beste egizko eskritore. Eta gaztea izan behar. Berak idatzitako nobela *Beste izakia* deitua, alde guzietatik, funtsaz eta azalez oso bikaina. Ez dirudi gazte baten nobela.

Eskritore gazte honeik guziok gidari baten bila eta eske dagozela, zeu zara jaioa horretarako. Ea datorren udan eratzen baduzu Donostian behinolako alkar-hizketa bezelakoa, sarrerazitzeko Europako aizea geuren artean eta baserritarren begiradak, itsutik, idigerik munduko pausura gaurko letradun europeano aundienak ezagututik pare parean imini.

Eta Hegoaldean ez badago libertaderik horretarako, ba egin behar geunkez, alkar hizketa horreik Miarritzen.

Nire uste probean, lehenbiziz, guren kondairan, ohingotan jaiotzen ari dago literatur baten posibilidadea, ez gaurkoen meritoz bakarrik, atzokoen ondorengo baino.

Gauaren erdia zat, eta nabaitzen dutela une honetako isiltasun gozoa, oherantz nohalarik, dinotsut: agur! Eskumin eta goraintzi.

Mendaron uztailaren hamarrean Euskaltzaindiko bilera batera zihoazela Ramon Saizarbitoria eta Rikardo Arregi, kotxe istripu latz, triste eta tamalgarria pairatu zuten eta ondorioz azken hau hil egin zen. Hain gazterik *Politikaren atarian* idatzi zuen saiogile argia eta hainbeste eskaini ziezaiokeena euskal gizarteari Heriok berekin eramanez. Arestik *Harrizko Herri Hau* Saizarbitoriari eskaini liburuan (Kriselu 16, 1970) Rikardoren Heriotzari buruzko eresia benetan hunkigarria utzi zigun eta tartean bertso hauek:

...Sasiolako orena

Rikardo Arregirena

Milaka geunden hartzeko baina...

Hartu duzu hoberena.

Bazen emakume bat Kordoban famatua egin zena bere karitatezko obrenengatik, gaixo eta eri zeudenak maiz bisitatzen zituelako, hala nola sortu zuelako *Club de la Peseta* deitua, zeinaren helburua baitzen eskatzea zuenari ez zuenari emateko. 1954az geroztik ezaguna zen bere ahizpa Juanarekin egiten zituzten karitate lanengatik, baina baita Jainkoak, esaten zuenez, hitz egiten ziolako, eta hitz horiek bere kuadernoetan idazten zituelako. Apezpikuei kostatu zitzaien *Nihil obstat*, baia

ematea, baina azkenean kontsentitu zuten beraien arloan ezjakin bat sar zedin eta 1974ean Espainiako Gobernuak emakumeari *Gran Cruz de la Orden Civil de la Beneficencia* delakoaz saritu zuen. Francisco Amores, ABC-ko kazetariak, eri zegoen bat sendatu zuela eta 1969an elkarrizketa bat egin zion “Anita, la de la peseta” famatuari, eta bertan jaso zituen PUEBLO egunkariko kazetari zen German Lopezarias-ek bildutako Kordobako bi apaizen txostenak. Eduardo Ruiz Doblaseña bat, eta nirea bestea.

Anita, andre mirarigileaz honakoa nioen. Alegia, maiz izan nuela elkarrekin hitzegiteko aukera, eta solas hauetan modu xumean agertzen zidala Jainkoarekin izandako harremanak, eta nola Jainkoarentzat dena posible den, eta gogo duenarekin nahi duenean mintza baitaiteke, aztertu ondoren Anak idatzitakoak denetan Jainkoak Elizaren magisteritzaren bitartez erakusten direnekin bat zetoze. Eta Margarita Garridorekin egin miraria, hots, zaurien sendatzea sinesgarri zitekeela, eta eskatzen genuela gerturatzen zena Anitagana ez zedila kuriositate hutsez baizik eta errespetu guztiz. Eta teologotzat euren buruak dauzkatenei eskatzen niela Jainkoaren grazia eska zezaten Jainkoaren soilik dena dasta ahal izateko.

Elkarrizketa aipatu hartan Francisco Amores-ek niri arrazoia emanaz bukatzen zuen artikulua, pentsatzen baitzuen Jainkoarentzat ez dagoela ezinik eta agian une hartan bertan jainkoarekin komunikatzen izanen zela Anita. Hala bada Bikario kapitularrak 1971ko otsailaren batean izendatu ninduen kasurako teologo ofiziala bezala, eta txosten luze bat



idatzi nuen “Sobre el carisma social de Profetismo en Doña Ana García de Cuenca”, titulatur eta Apezpikuaren Komisioaren aurrean apirilean bertan Madriden aurkeztu nuen.

Kordobako nire etxetik harremanetan nengoen mundu zabalarekin eta jasotzen nituen errebista ugari, gero artoski gordetzen nituenak ongi sailkatuak liburutegian, hala nola. ANDALUCÍA LIBRE, ARBOR, ARRAGOIA, BERMEO, BULLETIN DU MUSÉE BASQUE, CÁNTICO, EGAN, ESCORIAL, EUSKARA, EUZKERIA, EUZKO DEYA, EUZKO GOGOIA, EZKERRA, FONTES LINGVAE VASCONUM, GAIK, GERNIKA, GURE HERRIA, HAUTSI, HERRIA, JAKIN, KARMEL, LANGILE, OLDAR, OLERTI, ... ZUTIK...

Idatzi nituen artikulua ugarien artean bi topatu ditut euskaraz argitaratuak. Bat ZERUKO ARGIA-n heziketaz Jose Lasak idatzitakoari erantzunez eta Elizaren dotrina sozialari buruzko beharrezko klarifikazio intelektuala bestea. ANAITASUNA-n plazaratuak dira biak. Lehena 1969an eta 1970an bigarrena. Lehenean aipatzen dut haurren heziketa, zeren eta sorterrian, Mundakan enkestatxo bat egin ondoren, ohartu nintzen hogeita bost haur jaiotzen direla urtero, eta gogoetatzen dut zein eder ez ote litzatekeen denak euskaraz jakitea eta mintzatzea. Eta helburu hau lortzearren erresponsabilidadeak aipatzen ditut, alegia, gurasoak eta erakundeak, hala Udaletxea nola Eliza.

Bigarren artikuluan nioen filosofia modernoak, eta batez ere filosofo katolikoek, tartean Mercier kardinala eta honen eskolakoak, Maritain, de Wulf eta beste atzerritarren artean eta euskal filosofoen artean, Zubiri, Ellakuria, Zaragueta, Mugertza, Goenaga, Ertze eta beste zenbaitek proposatzen dituzten ikerketak guztiz interesgarriak direla belaunaldi gazteentzat jaso dezaten kultura unibertsal bat, jatorrizkoa galdu gabe. Teologoek obrak alemanez ere aipatzen nituen, eta zientifikoek, hala nola Einsteinen Erlatibitatearen teoria (*Die Grundlage der allgemeinen Relativitäts theorie*, 1916). Ez ditut hemen banan bana aurkeztuko denak, ezen luzexko emango bailidake bakoitzaren pentsamendua eta obrak xeheki adieraztea, bego dena den artikulua bere osotasunean

#### ARGI BERRI BILA

Kristianismoaren klarifikazio intelektuala.

Herri guztietan planteatuta dago, jakintza arloaren landa barruan noski, ideien klarifikatzea. Batez ere, jakintza, zientzia eta filosofia guztien aurrerakada hain izugarri ta haundia izanez gero, azken mende hauetan.

Erljioaren problema eta gaietan ere, dudarik gabe, azken berrehun urteotan, guztioi iruditzen zaigu klarifikatze bat beharrezkoa dugula. Eta derrigorrezkoa.

Ikuspegi unibersal baten barruan, hainbeste filosofiazko mugimendu etorri da, klarifikatze horren eske eta opa: iluminismotik modernismoraino, Hegel-en filosofiatik Sartre eta Garaudy-reneraino, Marx-en dotrinatik Mao-reneraino...

Katolikoaren artean ere, Hutsezintasuna dogma izan arren, neoeskolastizismoaren jaiotze ondoren, eta gaurkoratze horri erantzun bat eman nahiez, zenbait filosofo sortu izan ziren: Mercier Kardinala eta, bere eskolako ikasleak, Maritain, De Wulf, Defourny... Eta, euskal filosofoen artean, Zubiri, Zaragueta, Ellakuria, Ertze...

Europa Erdian, "Concilium Lovaniense" deitu ohi zaio askotan, irri-mirriz, Vaticanoko II. Kontzilioari. Eta Holandako krisia, berriz, hobeki konprenitzeko, haundiagotze baten krisia izanik, Lovainako influentzipean eta eskualdean dagoela jakinez gero, errazago uler daiteke.

Europako kultura, latino xobinista askori gustatzen ez bazaio ere, Rhin hibaiaren ertzeetan sortzen eta loratzen da, gaurko koiuntura honetan. Eta ez beste arrazoirengatik, kultura batek behar dituen kondizionamenduak erraz eta erruz han bertan ematen direlako baizik.

Baina, gaur egun, berrogei ta hamar urte hauetan, Ipar Amerika, Rusia, China eta Japon, zientzietarako behar diren ekonomia eta kultur kondizionamenduak lortu dituztenez gero, kulturaren aintzindari bezala jarri dira.

Gaurko teologoek —Rahner (*Schriften zur Theologie*), Urs von Balthasar (*Skizzen zur Theologie*), Michael Schmaus (*Katholische Dogmatik*), Bernhard Häring (*Das Gesetz Christi*), Philips, Schillebeeckx, Schöenberg, Salvaggi, Smulders, Thielicke...— jarraiko lau gaiei buruz ari dira tematsu:

1. Dogmen itzulpen historikoa.
2. Moral berria.
3. Eboluzionismoaren ondorenak.
4. Gizon osoaren heriotzea.

Komenigarri zaio, gaur egun, Herri bati ongi bai ongi aztertzea filosofiaren beste saihesta azaltzen dutenak: marxista filosofoak (Garaudy, Simone de Beauvoir, Sartre...) eta ekonomistak (Terekhov-en "La compétition économique entre socialisme et capitalisme"). Inolaz ere ahaztu gabe eskola guztietarik at diren Einstein (*Die Grundlage der allgemeinen Relativitäts theorie*, 1916; *Über die spezielle und die allgemeine Relativitätstheorie*, 1924), Leopold Infeld, Bertrand Russel, Mayendorf, Langevin, Plekanov... Guztiok ezagutu beharrezkoak, humanismo berri baten sintesia egin nahi bada.

Euskal kultura ezin daiteke bizi suzko problema sakonetatik kanpo, gaurko gizonen kezkei erantzun gabe. Era berean, eskritoreen pentsakera eta erantzun ezberdinak ager arazi behar dira, derrigor, egia biribila zintzotasunez azaldu ahal izateko. Orduxean bakarrik erakutsiko dugu Herri bizi bat garela, bederen. Eta zorionez.

Euskal filosofoek (Zubiri, Ellakuria, Krutwig, Alkorta, Muguerza, Arellano, Iriarte, Goenaga, Santamaria, Cruzalegui, Ertze...) zer esan asko dute benetan, gaur eguneko filosofiazko problemei buruz. Bestaldetik, Euskal Herriko Unibersidadeek (Bilbo, Deustu, Iruñea, Donostia) behar dute gaurkoratu,

belaunaldi gazteei kultura unibersal bat ikus arazteko, baina gure jatorrizko kultura berezia galdu gabe.

Helburu hauxe betetzera edo bete nahiez nator, ANAITASUNA aldizkariari esker, neure arbasoen baratzean berriro agertuz. Gaurko, eskribu hauxe, etorriko diren idazlanen hitzaurre eta aintzin solas.

Hala biz eta den.

DINDIRRI dantza taldea hasieran Grupo de Danzas Iparralde deitua Bilbaoko Alde zaharrea sortu zen Coral Bilbainaren eta Pertika maisuaren zuzendaritzapean 1944ean. Geroago gerra aurreko izena hartu zuen. Zuzendari gisara izan zituen Manu de Otañu “Okela” eta 1949tik 60a arte Jose Luis Etxebarria y Goiri “Txelu”, 1969an *Bizkai'ko Dantzak* liburua argitaratu zuena. 1970ean tamalez taldeko bi anai-arreba istripuz hil ziren, Miren eta Iñaki Arruti-Aldape eta poema bat eskaini nien omenez. AGUR, Bilboko astekarian lehen orrialdean argitaratu zen bi dantzarien argazkiarekin. Zirkunstantzia triste honetaz moldaturiko poema honek ARRUTI-ALDAPE NEBA-ARREBAK G.B. badu eresiarren airetxoa.

Guraso jatorren ume zintzoak,

Erri zale benetakoak, adiskide

Minak. Sendi bat zatitu da,

Arruti-Aldapetarrenean bada

Gaur samina. Dindirri taldea

Negarrez dago. Miren eta Iñaki

Seme on, dantzari bizkor eta  
Euskaldun garbiak, bide zabaletako  
Zerga barriak eruan dauskuz.  
Izango al-dauz Jaungoikoak  
Zorionean gure zain eta zaindari.

Mila bederatzirehun eta hirurogeita hamabostaren ekainaren bostean hil zitzaigun Gabriel Aresti adiskidea kuttuna Bilbon, honakoa idatzirik utzi nuelarik agendan:

Aresti joan zaiku. Eta bere bizitzaren ondorengo itxi dizkikegun emaitz ausartak oindino tenore huntan ez gara gizon heuretaz ongi kontabilizatzeko.

Epoka bien artean herrimuga. Bera baino lehen Krutwig agertu bazen ere egunsenti antzo autatuz litheratur mintzaira bateratua. Aresti begi argiz jakin zun Krutwigi jarraituz nondikan joan behar zen gure litheratur mintzaira kreatzekotan.

Eta hasiera hasieratik bere idazle karreran euskeldun berri izan arren jo zun bide zuzenetik aurrera.

Lehenik beren asmoak betetzeko neurritu zitun asmo horik bertsolari egunen ezagutza eta estudioan. Irigoien Alponsok inork baizen ongi jakin daki etapa horren etorkera.

Estimatzen nuen Luis Villasante gernikarra 1952an "Literatur-euskera, laphurtarr klassikoaren gain eratua" irakurri nuenez geroztik, eta Federiko Krutwig getxoarra Luis Villasante izendatu zutenean euskaltzain, Bizkaiako

Diputazioan egin zitzaion sarrera erantzunean, 1952ko maiatzaren 12an, hain justu, garaian oso modu ezezagunak zirenak erabiliz Elizaren joko bikoitza salatu baitzuen bortizki agintari frankisten aurrean, ze leku batzuetan euskararen alde jokatzeko zuen eta beste batzuetan, adibidez, Bilbon, kontra: *aunque sean veintenas de mil, no se les predica en su lengua*. Txalo ugari jaso zituen, baina bere aitaren aholkuz kartzela ez pairatzearen egun batzuetara Bidasoako muga igarotzera behartua izan zen. Bai eta Alfontso Irigoien bilbotarra, zeinak bere *Sorterriaren Alde* liburu autobiografikoan, Bilboko idazleen tertuliaz, Blas de Oteroz eta Agustin Ibarrolaz berba egin ondoren honela hitzegiten duen nitaz:

Martin Arrizubieta mundakarra, Kordoba-ko Santa Marina-n parroko dagoena, urteoro agertzen zitzaigun udara aldean bisita bat egitera. Euskal gauzetan oso kezkatua zebilen eta Andaluzian ez zuen giroan arnasa hartzera etortzen zen eta jende askorekin hitz egiten zuen. Tertuliakoentzat ere oso ezaguna zen.

Estimagarri da, noski, horrela eta ez bestela agertzea euskal idazle baten oroitzapenetan.

Manuel Lekuona, Gasteizen hebraikoa eta euskara irakasle izan nuenak, Lekuona zaharrak bezala bere burua aipatzea gogoko zuenak nik bidalitako gutun bati erantzun zion, Oartzundik, 1976. maiatzaren 10ean.

Tamalez Eusko Ikaskuntzak daukan oiartzuarraren artxiboan, neronek bidalitako gutuna desagertu egin da, edo transpapelatu nonbait, artxibariak idatzi didanez.

Honako gutuna erantzun gisa idatzi zidan Manuelek:

MARTIN ARRIZUBIETA jaunari, CORDOBA´n

Oiartzun´go Lekuona zaarrak, agur:

Eskutitz onen eramallea, nere illoba da, illoba politikoa, cordobarra, orko Hornacuelos´ko semea. Bere etxekoai ikuste-egitera dijoa. Eta nere anai maite Martin zanaren adiskide izan ziñala jakiñik, ametsa bat egiñik dijoa: zuri ere ikuste bat egiteko ametsa; orixe soil-soillik; ikuste bat egin, bidenabar nere agur biozkorra zuri eramana.

Emengo berriak berak emango dizkitzu; uste bait det jakin naiko dituzula.

Agur, beraz, zure betiko adiskide.

Martin Lekuona, Manuelen anaia, Oiartzunen jaioa 1907an, apaizgintzako bidea hautaturik Gasteizko seminarioan GYMNASIUM eta IDEARIUM aldizkarietan parte hartu zuen esan dugun lez, eta 1932an apaiztu zen. Berehala hasi zen apaiz lanetan Arabako Musitu herrixkan. Gipuzkoara bidali zutenean AVASC-eko idazkari koadjutore izendatu zuten 1935ean, *Juventud Obrera Católica Vasca* taldea sortu zuen eta EAJ-PNVko lehen apaiz sindikalistetarik izan zen. Gerra garaian, 1936ko urriaren 29an, hain zuzen, detenitu egin zuten Errenterian, eta lehenik Falangeren egoitza bilakaturik zen Batzokira eramana zuten. Azaroaren 4ean Donostian zegoen Ondarretako kartzelan. Lau egun eduki ondoren bertan, askatasun agindua sinarazi zioten, baina irtetzerakoan beribil batean sarrarazi eta Galarreta inguruko



harrobira, Hernaniko auzora eramane eta bertan fusilatu zuten Gerbasio Albizu, Jose Ariztimuño “Aitzol” eta beste hainbat bezala.

*Día Nacional de Andalucía*, Andaluziaren eguna izateko eta kontzientzia nazionalaren adierazpen eguna bezala andaluziar politikoeek 1977ko abenduaren laua hautatu zuten. Zortzi probintzietako hiriburuetan manifestaldi haundiak organizatu eta izan ziren, orotara bi miloi pertsona baino gehiago bildu zelarik. Baina ez zen ospatu eguna soilik aipatu hiriburuetan, inmigrazio andaluza haundia zuten hirietan hala nola Bartzelonan eta Madriden ospatu baitzen ere. Oroitarazten zen egun horretan altxatu zela Cádiz-eko hiria armetan Errepublikak Federala aldarrikatuz. Bandera txuri-berdea aideratu zen denetan, baina *Fuerza Nueva* eskuindar taldeko batek tirokatu eta hil egin zuen José García Caparrós gaztea Málagaan.

Nik bataiatu nuen Manuel Figueroa Kordobako Fakultatean Historia ikasten ari zelarik etorri zitzaidan behin Santa Marina elizako XVII. mendeko artxiboak aztertzer lagun batekin, eta noski aukera guztiak eman nizkien beren ikerketa burutu ahal zezaten. Euren ideia politikoengatik galdetu ondoren eta jakitun ezkertiarak zirela hasi nintzaien nire bizitzaren zertzeladak kontatzen. Urdaiazpikoa eta ardotxo baten inguruan, kontatu nien nola kontzentrazio esparruetan egona nintzen, nola nire burua marxistatzat jotzen zuen, euskaldun abertzale eta iraultzailea kontsideratzen. Nola erosten nituen liburuak Euskal Herrian eta hilabetero bidaltzen zizkidaten liburu iraultzaileak

euskarara itzuliak, *Lur* argitaletxeko harpidedun nintzenez. Halaber, aski ezjakin baitziren marxismo kontuetan ezagutarazi nien Sami Amin egipziar idazlea, ekonomista eta neomarxista kritikoa. Sos batzuek ere eman nizkien 1977ko abenduaren lauko Andaluzia eguneko manifestaldirako, lau bandera txuri-berde eros zitzen.

Argi eta garbi adierazi nien ni lehen-lehenik euskaldun bezala definitzen nintzela eta desterruan egon arren, erbesteko lurrairenganako, Andaluziarenganako esker ona besterik ez nuela. Francok, Kordoba ezarri zidan bizileku, nire sorterritik urrun zigor gisara, eta barrezka esaten nuela, zeren eta ez zekien desterru urrezkoa, gozoa ezarri zidala Andaluzia argi eta alai honetara bidaliz. Zorretan nintzela lurralde eder honekin.

Euskal Herriaz mintzatzen zirenean ez nuen besteen komentario eta iritzi okerrik onartzen, eta solaskideei esaten nien noizbait nire tribuko agintari eta zuzendari guztiek denboraldi luze bat Andaluzian igaroko balute beste modu ezberdin batera ikusi, aztertu eta epaituko lituzketela gauzak, zeren eta kultura ezberdinetako jendeekin harremanak izanez gero funtsean unibertsalistak bilakatzen baikara.

Ondorengo oharrak jaso izan ditudan Agenda ohizkoetarik hartuak ditut.

Gaur hasten dut 1979ko urtarrilaren 1ean apaiz jubilatutako lehen urtea. Baina bihar berriz lanera. Amaitu behar dut lehenbait-lehen Euskal Gramatika. Litteratur hizkuntza dagerrazkit Krutwigen, Aresti eta Aranburu, hiruren

liburuetan. Hortikan aurrera joan behar ! Leizarragakin lagun. Bidelagun.

Bostgarren ikaskaia. Atzo hasi nintzen irakurten Arana Goiriren liburua: *Bizkaya por su independencia* (Ed. Verdes Achirica, Bilbao 1932). Ondo idatzia pentsamenduz eta idazkeraz. Gaurko kondairalariak egingo beharko luke egin estudio sakona lau gudaz. Eta gero kondaira hori bertsolarien ahotan bersorturik Euskadin herriak behar dituen bertsoak eginak lirateke. Nazionalitate bat kreatorik beharrezko poemak leudeke. Liburu hau Sabino Aranaren obra guztien editoreek diotenez euskal kontzientziaren esnalea eta adimen gehien Aberriarentzat Bizkaian eraman dituen da, *La Abeja*, Bilboko errebista euskaltzalean 1890. urtean argitaratu lau artikuluen bilduma da, 1892an osorik emana. Sabinekin bere anaia Koldobikari dedikatu zion hitzokin:

Gomutetan yak, neure anai laztantsuba?  
1882'garren urtian goiz bat zuala, algarrekin bijok geure  
baratzen Bizkaia'en zorigestuaz itxetten gayenduban: nik  
geure Errija ordu-baño guztiz: ondo eznezaguban, baño  
euk ire itxagaz nire adija artezten euztakan, Guenan, esan  
neukan: oldoztuko yuat, exkinixei: dabat... Orixe  
berorregattik, badakusak eta ni berauk attorrtzen yuat eure  
itz ak-egipen, eraen batan, neure egikintxa guztija duala.  
Irorri baño nori obeto txikarr au, zein lelunga ezpadok,  
lelengo irakurrikua ixango yakuk, opatu yayuat?

Arrtu. egidak, bada, neure bijotz i-oneskorretik eta  
jaon egile benetako anattasunezko opatzat.

Arrigorriaga, Gordexola, Otxandiano eta Mungiako batailetan Bizkaiako burdina, euskotarren odola, sendotu zen.

1979ko urtarrilaren 3 a.

Zortzigarren ikaskaia idatzi dut. Hiru liburu daude euskeraren batasunerako izango direnak gauza kreatzeko, behar du gure hizkuntza orokorra eta batua, gaur eta hemen baita ere gure kondairaren luzean. Hiru liburuak: Krutwigen *Mikelditarrak*; Arestiren *Boccaccioren Dekameronen tipia*; Haranbururen *Caritate*. Baditut oingoan, sexu hiztegia egin bako materiala, gai berezia.

*Mikelditarrak* frantsesez *roman fleuve*, eta gaztelaniaz *novela río*, deitu ohi diren lehen liburukia da. Luis Haranburu Altuna editoreak eleberri lodikote gisara aurkeztu ordez, hamaika liburutan aurkeztea erabaki zuen hain luze diren memoriak edo, pertsonaien izenak aldatuz, noski, oroitzapen nobelatuak. Balzac-en *La Comédie Humaine*-ren ildotik Krutwigelek kontatzen du, nola Bilbon gerra ondoko giroan Mikelditarrak izeneko elkarte kulturala eratzen duten. Nola Heiko izena duen protagonistak lagun batzuekin batera Kulturari buruzko ekintza batzuek egiteagatik, Baionara joan beharrean aurkitzen den. Nola hemendik *Lutegira* (Parise), eta ondoren *Erroten Burgira* (Brusela) joateko asmotan dabilen nobela amaitu ordurako. Protagonistaren ibilaldi honetan eta honen barruan sartzen diren pertsonaia eta pentsakizun gehienek egilearekin oso harreman estu bat dute. Adibidez, honako dioenean 185. orrialdean: *Philosophiaren graphe batetan gorke*

*sphairei buruz bethi mintzo da, arranoek eta belatzek maithe ditutenez...*

Aipu ttiki honen bitartez ikus dezakegu grekerazko hitz klasiko eta tekniko ugari erabiliz nahiko lukeen Laphurtar klasiko gardenaren ordezkutwiger a idiolekto batean idazten duela, eta azken finean mordoilo irentsezina gertatzen dela eta ondorioz frakasora, beheko errotara joan zitzaizkiolarik *romanak* hartu zuten bideagatik, inork gutxik irakurri ahal izan baititu.

Aipatu Giovanni Boccaccioren *Decamerone ttipi bat* (1979) itzulpentxoak honako sarrera eta aurkezpena du:

giovanni boccaccio / dekamerone ttipia / gabriel aresti eta seguiolaren / selekzio eta translazio bat, / aita lino akasolo ri dedikatua; / boccaccioren abadeak miratzen ziren miraila.

Eta jarraitzen dio gaztelaniazko zenbait hitzez, non argitzen digun XVII. mendeko fraide batek itzultako testuak ageri dituen nabarmenki alde batetik Leizarragaren kultismoa eta Axularren populismoa bestetik, eta gainera errespetatu duela garaiko grafemen egitura bera. Eransten du Tomas Akinoko edo Agustin Hiponako bezain edifikatzaile ez izan arren anitzez dibertigarriago dena.

1979ko urtarrilaren 4 a.

Bederatziagarren Ikaskaia. Gaur lehenik nere bizitzan egin dut kosinero gisan. Lapikoa patataz beterik gozo egon da. Galtzen ari naiz larregi denpora telebistari begira. Baina hori

da daukadan atsegin bakarra. Eta bestetik kultur-iturri zait: berriak, nobelak, entzutea hitz egiten, nitzat bakarti naizen aldetik mirari haundi bat horrelako gauza ximplea. Bizitza hauze ez da esplikaziorik izaten ez bada idazteko denbora edukitzea. Zorionez!!!

1979ko urtarrilaren 5 a.

Eldu izan naiz estudiatzen hamabost ikaskai Gabonetako opor-aldian. Geroago eta argiago dakust ze atzeratuak gauden euskal estudiantan. Egunotan egon da Batzar haundia Arrasaten, gramatikalarien inguru agertzeko zein ete den segurtasunaren etendura eta ezagutza gure hizkuntza. Hainbat txosten irakurriak izan dira. Ea noiz urtengo den hilabete horri dagokion Euskera aldizkingiari dagokion lumeroa.

1979ko urtarrilaren 6 a.

Gaur bertsolarien norgehiagoka Donostin. Herri-irratiri entzungo dizkiet saioak. Eta zorionez irratitik entzuten hobe danetarako: epaitzeko, kritika zehatza egiteko, eta abar. Gainera merkeago.

1979ko urtarrilaren 7 a.

Gaur eskutitzak idazten igaro naz eguna. Eta periodikuak irakasten.

1979ko urtarrilaren 8 a.

Osagilearengana joan naiz goizez medizina bila. Bakarrik ahantzi diot Diabetesari dagokion medizina. Deskantsatuko

dut aste bat. Arratsaldean etorri dira hiru neskatil euskarazko klasera. Zer pasa da?

1979ko urtarrilaren 9 a.

Hasi da gaurko klasea. Etorri dira. Lehen ikaskaia aplikatu behar dugu. Gure olerkari famatu eta ospetsuenek (Orixe izan ezik, Lizardi, Lauaxeta...) erderatik jasotako metrika neurtuenak erabiltzen zituzten. Moda horrerri aurpegia emanik Aresti bertsolarien moldeetara bihurtu zen eta baita ere kontrazentzu bat bazirudien ere bertso libroen lantzera (*Harri eta Herri*). Ez zan eksklusibista, ezta usainik ere, horregaitik bere hedadura eta jakinminetan konbeniko zaikun apur geroago argitaratuko den Haristchelarren zorioneko tesi liluragarria ta sakona *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)* eta beste bigarren liburua *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* (*Euskera* XIV-XV, 1969-1970. Bilbao) irakurtea.

Egun batez, labankada gisara sentitu nuen nire etxearen hormetan pintatu zutenean letra haundiz ez zutela euskal apaizarik nahi. Oso maite ninduten parroko eliztarrak berehala prestatu ziren ganberrada hura ezabatzera, zegoen zegoenean utz zezaten esan nien, zerbait benetan izatekotan euskalduna nintzela, sustrai-sustraitik eta. Bakoitza bere untziaren gilari leial izan behar baitzaio, untziaren branka uhinetarik ageri diren ostertzen egarri den bezala, zuhaitzak beren erroei fidel diren erara, lorea lez. Beraz, erro eta gilen

hizkeran esanda: *Mundakarra naz ni. Bizkaitarra naz, Euskadikoa naz. Zazpirak bat.*

Hau baita nazionalitate baten bilakaerarako abiapuntu nagusia, benetazko lehen baldintza. Hona hemen panfletorik maitatuena bezala kontserbatu dudan eta gaztelaniaz idatzi nien erantzuna. Halere ez ninduten kasurik egin eta paretatik ezabatu egin zuten pintada hura.

### EN EL FRONTÓN GRIS

A mi casa le dieron una puñalada negra. Un letrero que no quiero que lo borren:

### NO QUEREMOS CURAS VASCOS

Y vienen mis feligreses y los muchos amigos desperdigados por la ciudad de Córdoba a decirme que hay que borrar esa gamberrada. Así la han definido. Yo les pido que no borren ese letrero. La raíz de mi realidad humana es esa: vasco. Y a mi me gusta que cada uno sea fiel a su raíz, como un árbol. Como una flor. Que cada uno sea fiel a su quilla, como la proa del buque no es más que la quilla sedienta de horizontes que emerge de las olas. Mi raíz y mi quilla son eso: Soy vasco.

Soy mundaqués. Soy vizcaino. Soy vasco.

Dicho en lenguaje de raíz y de quilla: *Mundakarra naz ni. Bizkaitarra naz, Euskadikoa naz. Zazpirak bat.*

Este es el primer elemento esencialista, punto de partida del desarrollo de una nacionalidad.

Santi Onaindia karmeldar adiskide zaharrak idazten zidan noizbehinka eta bere errebistetarako (KARMEL,



OLERTI) testuak eskatzen, eta nola-hala moldatu poematxoak bidaltzen nizkion. Nire jaidura filosofikoari jarraikiz «Gaurko larri-unea», lana burutzen ari nintzela azkeneko urteetan, funtsetik, errotik, sustraietatik... azaltzeko, argitzeko eta argiagotzeko. Eta hau bukatu artean hona, bada, OLERTI-n 1980.ean argitaratu poema, non nioen inoiz ez inor barkatzen ez duen denbora, tximistargi laster baten eran zaldi ganean, hamabi din-donekin dihoala urte zaharra, Euskadiko Euskal Herria sortuko den esperantzaz:

### EGUNEROKO GABON ZAHAR

Desaritzen nau tartean

Denbora doa

Zaldi ganean

Mugatua be itxasoa!

txaka-txak

txaka txak.

Ditzagun azter!

DENBORA den tximistargi laster...

Asi berri behe unetik

Gerora...

Lurretik

Gu gora...

txaka-txak

txaka txak.

Azken uneak

Ohintxe dira eneak

Txak

txaka-txak

txaka txak.

Eta igaroen

Batera

Betiko geldi dadin gaurkoen

Kikunbehera

Oroien artean

gaurkoen lurpean

Txak

txaka-txak

txaka txak.

Amabi dindon, lehenaz, mustean itto da

Erdel azken biotzkada.

Drangan drangaka

Utikan,

Drangan drangaka

Utikan,

Sor dadin euskaldun berri

Euskadiko euskalherri!

Zahartzaroak ez du inor parkatzen. Duela urte batzuk, 1984eko irailean, hain zuzen, Bartzelonara joateko gonbidapena egin zidaten adiskide zahar batzuek, bertan biltzekoak zirela eta *Frente de Liberación Popular* deituriko militanteak, felipeak. *Front Obrero de Catalunya*koak (FOC) eta *Euzkadiko Sozialisten Batasun*koak (ESBA bezala neuk bataiatuak), zuzendari politiko ugariaren emaile. Ez zait gustatzen atzera begiratzea gehiegi eta nostalgiaz hitzegitea, eta ekitaldiaren alde propagandistikoa ere ez nuen oso gogoko, baina lagur zahar batzuek besarkatzearen joan nintzen Katalunyak hiri nagusira. Fundación Miró-n ospatu ziren jardunaldietan Luciano Rincón, José Ramón Recalde, Joaquín Leguina, Didac Fábregas, Javier Solana eta beste hainbat agurtu nituen. Eta luze mintzatu nintzen kamarada zaharrek in edo nolabaiteko gogaideekin solasean politikaz mintzatzeko aukera izan bainuen, edo bederen jakiteko nola pentsatzen zuten orain eta nola ikusten zuten munduaren bilakaera, egoera, Francoren diktadura amaitutakoan. Erabat aldatuak zirela asko ohartu nintzen eta garbi gelditzen ari zitzaidan horrelako jende errari, boterezale, batzuek goi kargu garrantzitsuak izatera iritsi baitziren, eta hain aldakorrek in benetazko iraultza burutzea ezinezko zitekeela eta halaxe gertatu izan zela. Erdipurdiko trantsizioa.

Horrela bada, Bartzelona utzi eta aski etsiturik itzuli nintzen *Calle Mayor de Santa Marina*-ra, hain zuzen, Santa Marina elizatik eta *Taberna La Sacristía*-tik gertu neukan nire txokora, non Ines serorak etxeko lanak, garbiketak eta

otorduak prestatzen zikidan egunero modu txit gozo, ezti, maitekorrean.

Hurrengo urtean, 1985ean beraz, Mundakako etxera bederen azken aldiz joan behar nuela eta Euskal Herria bisitatzera eta hala maiatzean abiatu nintzen nire txoko maitatura. Deitu zidaten ARGIA-n idazten zuten gazte batzuek, Edorta Jimenezek eta Josu Landak elkarrizketatu nahi nindutela eta hala bada bazkalondo batean agertu zitzaizkidan etxean. Lehena mundakarra ni bezala bizarduna eta aski serioa, bigarrena giputxa, altzatarra eta aski txolina. Argitaratu berri zuten liburu bana oparitu zidaten, *Itxastxorien bindikapena*, eta *Ipurtargi beltza*.

Atera zizkidaten argazki batzuek ere eta astekarian maiatzaren 5ean plazaratu. Bertan ikus daitekeenez nabarmen da zaharrerriak jota nagoela, baina oraindik burua argi daukat, eta hauen lana ez zitzaidan gehiegi gustatu, zeren nire izen deiturak gaizki emateaz gain, *Martin Arrizibita*, diote letra haunditan, eta beheraxeago *Abade ezkertiar baten oroitzapenak*...hirugarren zutabeko aipamenek jauzi egiten dute, eta lekuz kanpo dabilta. Borondate onarekin bakarrik ezinezkoa da gure Euskal Herria jaso, eta altxatzeko beharko lukete gazteok arreta haundiago ezarri lanetan, gehiago ikasi eta gauzak hobeto egin.

Gabriel eta Koldo hil zirenetik ez dut fundamentu haundirik ikusten bazterretan, eta kontutan hartzen badugu gehien saltzen den kazeta, pozoina besterik ez darion *El Correo Español* dena, etorkizuna beltz dakusat.

Kordobaratu naizelarik berriro, aspalditxotik diabetesak jota eta begien eritasunak ez didala ia irakurtzen uzten urteekin biltzea lortu dudan nire liburutegi ederrean, hainbat eta hainbat liburuz eta errebistaz inguraturik, etsiak eta itsuak ia jota, baina barne argitasun batek bizturik, bakardade osoan Teresa de Cepeda y Ahumadaren jarraitzaile zintzo izan zen Juan de Yepes karmeldar erreformazale eta mistikoa irakurtzen dut gogo haundiz, baratxe, astiro-astiro, hala nola *Noche oscura del alma*, poema. Oroitzapenak beti sorterrian lumak honakoa isuritzera bultzatu nau:

## ARIMAREN GAU ILUNA

Menditik ura basatz

hura aranan garbi

Itxas ondoan nasai

gesalatuaz il.

...

Su hutsezko iturria,

Jainko, zergaitik

ez gel on eginean

aurre behar barik?



## AURKIBIDEA

1. MUNDAKARRA NAZ.....	3
2. DURANGOKO JESUITAK.....	13
3. KONTZENTRAZIO ESPARRUAK.....	35
4. KORDOBAKO DESTERRUTIK.....	59

